


ARRASATE

PRESS

Arrasate 1992ko Otsailak 21, 139. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean




**MANOLO
QUEVEDO**

Erronka berriei
aurre egiteko gertu



Taldeko bizitza

Santa Agedako esperientzia



%12_{ko}

MECA, S.A.

beherapena otsaila eta martxoan **RENAULT 21**
modelo batzutan.

M

ormalean, gerrako abioiak pelikuletan baino ez ditugu ikusten. Argazkiko lagun hauek, zalantzarik gabe, ikusi bestela nola hurbiltzen diren eskuekin ikutzera, aproposetako ez dela, burdinezkoa baizik egiaztatzen.

Ez dakigu zer nolako istoriak ezkutatuko dituen 41-19 honek, etsaiaren zenbat «kaza» botako zituen lurrera konbatean..., zeinck daki, beharbada



Juanlu

“Baroi Gorriak” berak noizbait gidatuko zuen...

Izán ere, nahiko itxura tristea dauka Espainiako

Armadaren abioi honek, Bardeetako basamortuko zeru grispean, betirako lozorroan.

BULARREKO PATOLOGI UNITATEA

Mamografia

Gune susmagarriak aurkitzea.

Gune susmagarrien ikuspegi zabalagoak.

Bularreko ekografiak.

Bularreko tumoreen zitologia.

Arrasaten bertan, kanpora joan beharrik gabe, egin ditzakezu bularreko gaitz guztien diagnostiko klinikoak, erradiologikoak, ekografikoak, termografikoak, zitologikoak, laborategikoak, etab.

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA



DK.ak: CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIENDO, OTALORA, RUIZ.

Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18

ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)
Azoka kalea, 1 20.500 ARRASATE.
Tfnoa: 77 05 65 Faxa: 77 09 40

Laguntzailea:

Arrasateko Udala

Zuzendaria:

Arantzazu Loidi

Erredakzioa:

Beñardo Kortabarria, Agurtzane Loidi.

Publizitatea eta harpidetzak:

Amaita Sanz
Tfnoa: 77 08 15

Maketazioa:

Goio Arana

Erredakzio-kontseilua:

Jose Felix Diaz de Tuesta, Harry Zاراia,
Asier Aranguren, J. Velez de Mendizabal.

Kolaboratzaileak:

Mikel Irizar, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Gerardo Markuleta, Blanka Jauregi, Joseba Vallés, Karmelo Uribarren, Hankamotz, Atalaitaikoan, ASA taldea, Xabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaita Jauregi-Arraburu, Andoni Urzelai, Koldo Rodriguez, Jon Andueza, Udalako Ingurugiroko Eskola, Juan Bautista Agorria.

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

Banaketa arduraduna:

J. L. Arejolaleiba

Copyright:

ARRASATE PRESS

Tirada: 5.800 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

Frankeo kontzertatua: 37-60

ARRASATE PRESSEk ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren laguntza jaso du.



ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Aqui no pasa nada...

“Gure helburua, 2000garren urtea baino lehen sozialista sendia mahai berberaren inguruan eseraraztea da. Hori ezik, kapitalismoak planeta osoaren esperantza itzal lezake”. Horrela idazten zuena, orain dela bost bat urte, Bertrand Russell Fondoaren zuzendaria zen, Ken Coates jauna, hain zuzen.

Auskalo gaurregun sinatuko ote lituzkeen hitz horiek, munduan sozialistak ematen ari diren eredia ikusita gero. Aurrera baino lehen, diodan, sozialistei nagokienean europar alderdi sozialistei buruz ari naizela, hau da, ukabil eta larrosakoei buruz. Zail xamar ipini diote sozialistek Coates jaunari, munduan burua altxatuta joan ahal izateko egokiera, edozer egunetan desestaltzen baita txapuzaren bat, oinezkook gorritz lotsatuta uzten gaituena... Besteen lotsa sufriarazten digute zorioneko “psozialistok”.

Ba al dago kilo batetan gehiago sartzerik? Aipa ditzadan azken orduetan ezagututakoak: Pilar Mirok dioenez, Alfonso Guerra Sikiatriko-rako moduan dago; goitik beherako inbento faltsu bezain gorrotogarri dela gehituz. Garcia Valverderen iruzurrak ez omen dauka bukaerarik; zipristin lohi eta kirastuak bere alderdikideei eror ez dakizkien, betiko ixilerazi nahi omen dute Renfeko lehendakari

ohia. Sevillako Expo ospetsuan ustelkaiak perretxikoen legez hazten omen dira: orain 50.000 pezeta kobratzen omen dituzte Luis Yañezen mutilek, “errege-etxeko ordezkariaren batekin harremanetan ipintzeagatik”. “Beautiful people”aren inbertsio zentrua ei den Ibercopen eskandalua; Banco de Españako gobernadore txit argiak komisiok kobratzen omen ditu -baita dibidendo ederrak ere- bere gestio eta informazioengatik.

Frantziar sozialisten azken iruzurrak, miloika liberatuko zuloa utzi du agerian: ministro eta idazkari nagusiak barne, Mitterranden “poulain”ek ederki omen dute aprobetxatu gobernuan egoteak eskaini dien aukera. Txaletak, yateak, maitaleen gastuak... dena zen posible, sozialistek eurek sorturiko enpresaren bitartez eta frantziar guztien diruarekin.

Barregura sortzen dit, boterearen instantzietatik betebeharraren ohorea-ri sarri egiten zaion kanta loratuak. Estilo prepotente higuinarriz, sozialista aintzindariak luzatzen dituzten diskurtsu faltsuak irensterazi beharko litzaizkieke, osasunaren izenean. Eta osasuna diot, hain zuzen ere, legea aipatu ezin dezakedalako, sozialistek eurek egituratzen bait dute, zenbait morroi zintzoren laguntza estimagarriaz.

JOSEMARI VELEZ DE MENDIZABAL

Memesa
79 42 22

comercial
san juan

Garibal, 12
Tfnoa: 79 13 05

hikein
MARKO-JARTZEAK

Zerkaosteta, 4
Tfnoa: 79 13 84

Ertzainak eta euskara

Urtarrilak 31ko Arrasate Pressen "Ertzainak eta euskara" izenburupean E. L.-k idatzitako eskutitza agertu zen. Bertan, kotxe gidari batek euskaraz berba egiteagatik pairatu zuen indarkeria, gehikeria eta mehatxuak salatzen ziren.

Herrizaingo (Barne) Saila harritu egin zen hori irakurri ondoren eta kasua aztertu egin du. Eta etxe honetan daukagun froga eta datuen arabera honako hau gertatu zen: urtarrilaren 19an, goizaldeko 03,45etan kotxe batek ez zuen errespetatu Arrasateko Zerkaosteta Kalea eta Garibai etorbidearen artean dagoen STOP seinalea, ondorioz ertzaintzaren kotxe batek behin eta berriz geratzeko agindu zion, baina gidariak ez zuen kasurik egiten. Azkenik, Gipuzkoako Foru Plazan gelditu zen. Gidaria gaztelaniaz hitz egiten hasi zen eta gero euskaraz jarraitu zuen. Ertzainen eskaerak eta aginduak ez zituen bete eta une oroz gogor egon zen. Ertzainek gidariaren portaera gogorraz gain, haren begi gorriekin ohartu ziren eta egoera argitzeko ertzainetxera eraman zuten. Bertan, alkoholaren froga egin ondoren positibo ateratu zen. Era berean, esan behar dugu gidariak ia denbora guztian euskaldunzaharrak diren ertzainekin izan zituela harremanak.

Beste alde batetik, gertaera honetan parte hartu zuten ertzain guztiak (ohizkoa denez), bai euskaldunek eta bai erdaldunek, euskal hiztunen eskubideak errespetatu egin zituzten.

Ondorioz E. L.-k sinatzen duen gutunean esaten dena ez da egia. Kasu honetan, bada, euskara ez da izan arazoa, atxakia baizik. Euskara erabili egin da benetan gertatutakoa estaltzeko.

Beste alde batetik hala nola euskal gizarte honetan euskaldunak gutxi garen ertzaintzan ere euskaldunen kopurua, zoritxarrez, txikia da. Horregatik ertzainen euskara-gaitasuna lantzen ari gara. Baina inondik inora ezin da esan ertzaintza euskararen aurka dagoenik, hori esaten duena gezurretan ari da.

Gure euskara denon artean eraman behar dugu aurrera, eguneroko lanarekin eta ezin ditugu indarrak banatu. Gauzak hobetzeko kritikak beha-

rezkoak diren neurrian, errealitatea estaltzeko euskara atxaki bezala erabiltzeak ez du ezertarako balio.

HERRIZAINGO SAILAREN PRENTSA
ZERBITZUA

Pakea

Azken aldi honetan guztion ahotan dabilen hitza dugu pakea, baina, dirudienez, ez dugu denok gauza bera ulertzen pakea esatean. Pakea ulertzeko modu desberdinak dituztenen artean, pertsona errespetagarriak ibili arren, ez dugu gauza bera ulertzen pakeaz.

Honelako idazki batean ezer gutxi esan badaiteke ere, gogoeta batzuk egin nahi nituzke.

Pakea ulertzeko modu bat da, gure ideien, pentsakeraren eta interesen aurka hitza ateratzen duena edo burua altxatzen duena isilerazi, makurterazi, menperatu, zapaldu eta gu pakean utz gaitzatea. Nire ustez, honetatik ez dator pake iraunkorrik eta zuzentzuan oinarritutakorik.

Beste modu bat, ordea, eritzi, asmo, interes ... desberdinetakoen artean, eta denok elkarri entzunez, eta elkar errespetatuz lor daitekeena.

Ni neu, bigarren bide horren aldekoa naiz, eta batez ere: txikiei, ezinduei, zapalduiei, langabetuei, gose direnei, presoiei, herri zapalduiei... askapena ekarriko dien pakea lortu nahi dut.

Ez dut uste, boteredunen, dominatzaileen eta menperatzaileen pakea ez iraunkorra ez zuzena denik.

Hurrengo gogorkeria guztiak pakea ulertzeko modu desberdin hauen ondorio direla esango nuke.

Badakit gai honetan egia guztiaren jabe ez naizela, eta hori onartzen dut. Denon artean, bakoitzak bere egia zatia jarriz bilatu behar genuke egiazko pakea.

Gai honi buruz, beste gai askotaz bezalaxe, elkarrizketa gehiago behar genuke.

Berdin zait, Nazaretoko Jesusek eskaintzen digunean oinarrituz, nahiz Gandirengan oinarrituz, nolako pakea behar dugun denok esan behar genuke, geure eritzia behar genuke, eta horretarako, bitartekoak edo bideak jartzen ahalegindu behar ginateke.

M. A.



gili gili

Iturriotz, 9 Tfnoa: 79 94 57



Liburu eta paperdenda
Bidaiarako eta larruzko artikulua

Iturriotz, 4 Tfnoa 79 14 84


MUSAKOLA
OSTATUA

Taberna
Jatetxea
Bazkarialak
Bodak
Banketeak
Gelak

Gipuzkoako Etorbidea z/g
Tfnoa: 79 20 50

ARAMAIO
okindegia

Maisu Guridi, 3
Tfnoa: 79 36 46



Kontzeziño, 2
ARRASATE
Tfnoa: 79 14 06

Liburutegira joaten zara?



Andoni Garro
(Langilea)

Klaserako lanen bat egin behar dudanean joaten naiz, bestela ez asko, baina uste dut nahiko zerbitzu duela.



Inazia Llodio
(Etxekoandrea)

Erakusketak ikustera joaten naiz Monterronera baina ez liburuak irakurtzen. Nire adinekin bista ere, asko galduta daukat eta.



Esti Loiti
(Langabetua)

Ez naiz asko joaten. Lehen ikasten nengoela bai baina ordutik, ohitura asko galdu dut. Hala ere entzun dudanez, tokia txikia da.



Ander Urzelai
(Ikaslea)

Debereak egiteko, egunero joaten naiz eta batzutan bertako liburuak hartzen ditut etxean irakurtzeko.



Agustin Azkoaga
(Jubilatua)


Ez, ez naiz joaten etxean liburu asko dudalako. Baina oso ondo preparatuta dagoela entzun dut.



Isabel Giner
(Ume zaintzailea)


Ez naiz sekula joaten, ez dut denborarik eta.

SEGURTASUN-INJINERUTZA



Zure denda, lantegia, etxea, etab. **BABESTEN** ditugu **LAPURKETA** eta **SUTEEN** aurka
Legutianoko atea, 35 Tfnoak: 26 34 77 eta 26 33 44 GASTEIZ

M
E
C
A



R
A
P
I
D

IKUSENTZUTE BIDEZKO MEKANOGRAFIA

- 28 ordutan, eguneko klase bat, 200 pultsazio minutuko
- Hatzamar guztiekin idaztea
- Tekletara begiratu gabe
- Baita abiadura ikastaroak ere, minutuko 350 pultsazio arte.

BAITA MEKANOGRAFIA
ORDENADORE BIDEZ ERE

TAKIGRAFIA

meca-rapid

Otalora, 3-1. C ARRASATE Tfnoa: 79 68 53

BEHARREZKO TELEFONOAK

ERITETXEAK

Arrasateko Eskualde-Ospit.	79 53 00
Igualatorioa	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea	
(gizonak)	79 39 00
(emakumeak)	79 44 11
Buru osasunerako zentrua	79 90 11

GURUTZE GORRIA

Bergara	76 55 76
---------------	----------

DYA

Antzuola	76 62 91
----------------	----------

ANBULATORIOAK

Arrasate (Larrialdiak)	79 13 57
(Txanda hartzeko)	77 03 46
	77 07 21
Oñati	78 08 52
Eskoriatza	79 98 58
Aretxabaleta	79 74 58
Aramaio	(945) 45 51 16

ANBULANTZIAK

Gipuzkoako ambulanziaz	45 87 44
------------------------------	----------

UDALTZAINGOA

Oñati	78 04 11
Bergara	76 14 69
Arrasate	79 14 39
Aretxabaleta	79 10 52
Eskoriatza	79 03 22

ERTZAINZA

Arrasate	79 71 99
----------------	----------

SUHILTZAILAK

Udal taldea	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile	
burua	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea	78 28 00

MATXURAK

Urak (udal zerbitzua)	79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero)	79 05 81
Gasa	900 40 05 23
	79 78 44
	79 76 78

GARRAIOAK

Taxiak	79 12 22
P.E.S.A.	79 14 19

HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ZENTRUAK


Iturbide Egoitza	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza	79 81 57

KONTSUMITZAILEARENTZAKO INFORMAZIOA

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak	79 87 77
KIUB-OMIC	79 51 55

MONTERRONGO LIBURUTEGIA

Monterron	77 01 05
-----------------	----------



21

OSTIRALA

- Zinea: Alai: "Beltenebros" (5-7.30-10).
- Bideo emanaldia, Kontzejuplean, arratsaldeko 7etan.
- Goardiako farmazia: Morales, San Andres.

22

LARUNBATA

- Zinea: Alai: "Peligrosamente unidos" (5-7.30)
- Herriko plazan, larrugintza, pintura, papergintza eta zankoei buruzko tailerrak, arratsaldeko 5etatik 8etara.
- Antzerkia "Dosis de pasividad" herriko plazan, arratsaldeko 8etan.
- Rock kontzertua gaztetxean, MCD eta La Hiel, gaueko 10.30etan.
- Umeentzako bideo-emanaldia, "Robocop" arratsaldeko 4.30etan Monterronen.



Futbola

- Atxabalpe ondoko futbol zelaian emakumezkoen Mondra eta Dunboa taldeen arteko partidua. Igandean eguerdiko 11.45etan.

25

ASTEARTEA

- Zinea: Alai: "Peligrosamente unidos" (7-9.30)
- Sukaldaritza ikastaroa, Torrepe Elkartearen arratsaldeko 3etan.
- Gantxilo ikastaroa, AEDn aratsaldeko 3etan.
- Goardiako farmazia: Irizar, Erguin.

26

ASTEAZKENA

- Hitzaldia: "Publizitatea eta kontsumismoa", arratsaldeko 3etan AEDn.
- Goardiako farmazia: Amezua, Santamaina.

27

OSTEGUNA

- Goardiako farmazia: Aurora Ruiz, Maala.

23

IGANDEA

- Zinea: Alai: "Peligrosamente unidos" (5-7-9.30)
- Mendi irteera: Txindokira, Garibaitik goizeko 7.30etan.
- Masaia ikastaroa, Yoga elkartearen.
- Goardiako farmazia: Español, Iturriotz.

24

ASTELEHENA

- Zinea: Alai: "Peligrosamente unidos" (7-9.30)
- Goardiako farmazia: Corcuera, Musakola.

Futbitoa

- Zaldibarko futbito txapelketaren barruan 12 partidua larunbata eta igandea bitartean Zaldibarko frontoian.

Saskibaloia

- Larunbata arratsaldean, 6etatik aurrera, Centraljet Euskal Air - Tabirako partidua Musakolako kiroldegian.


Ikastaroak

• Igeriketa

Datorren hilabeteen hasiko da Arrasaten, Musakolako polikiroldegian igeriketa ikastaro bat. Bi maila bereiztuko dira, bata hasiberrientzat eta bestea dakitenentzat osagarri bezala. Beharrezkoa da bazkide izatea eta gainerako prezioa 2.500koa izango da hil bakoitzeko. Informazio gehiagotarako deitu 79 04 27 telefonora.

• Informatika

Bergarako UNEDek, martxo eta apirilera, informatikari buruzko ikastaro bat antolatu du. Ikasle eta giza zientzietan adituak direnentzat zuzenduta daude. Izena emateko epea martxoaren 18an bukatzen da, UNEDeko bulegoetan. Matrikula arrunta 5.000 pezetakoa izango da eta bertako ikasleentzat 4.000koa. Partaide guztiak ziurtagiria eskuratuko dute.



• Testua

Bergarako UNED filologi departamentuak testuaren inguruko ikastaro bat antolatu du, ulerkuntza eta sormena ikasteko. Egitarauaren barne martxoaren 13an hasiko dira ekitaldiak eta apirilaren 4ra arte luzatuko dira. Ikastaroa bukatu ondoren ziurtagara emango da.

• Yoga

Arrasateko yoga elkarteak ikastaro berri bat antolatu du. Datorren 24an hasi eta apirilaren 15era arte luzatuko da eta astelehen eta asteazkenetan.



Drogomenpekotasunen aurka

Asteburuan amaituko dira antolatutako ekintzak

Drogomenpekotasunaren aurkako asteko ekintzen amaiera izango da asteburu honetan. Aste osoan zehar Tunantes del Norte taldearen "Dosis de pasividad" lana ikusteko aukera izan da ikastetxe desberdinetan; larunbatean, lan bera herriko plazan izango da ikusgai, arratsaldeko 8etatik aurrera. Larrugintza, papergintza, pintura eta zanko tailerretan parte hartu ahal izango da larunbat arratsalde osoan. Besaidek ere, parte hartu nahi izan du drogomenpekotasunaren aurkako astean eta iganderako Txindokira mendi-irteera antolatu du. Horrenbestez, Udaletxeko drogomenpekotasunen aurkako zerbitzuak antolatutako astea bukatutzat emango da.

Antzerkiak gain, astean zehar, herriko kaleetan muralak jarri dira eta drogomenpekotasunari buruzko mahainguru bat ere izan da. Antzerkia behintzat, arrakastatsua izan da, gazte askok ikusi du eta Arrasateko tunanteen lana.

Hiru txandetan banatuko dira, ordutegia honako hau izango delarik: goizez 10etan, arratsaldez 6.30etan eta gauetz 8.30etan. Informazio gehiagotarako eta izenak emateko deitu telefono zenbaki honetara: 79 35 76.

Aurkezpena

• Dorletako txirrindulariak

Datorren 29an, Dorleta txirrindulari taldearen aurkezpena egingo da Gatzagan. Ekitaldia meza batekin hasiko da eta aurkezpena egin ondoren lunch bat ere izango da.

Erakusketa

• Fosilak eta mineralak

Hilaren 29a arte, Monterroneko erakustokian zabalik izango da, fosil eta mineralak buruzko erakusketa. Erakusketa oso interesgarria denez, jende asko pasatu da Monterroneko erakustokitik. Ikusi ez duenak, badaki, asteburu bakarrik duela.



Afaria

• La Merced-eko ikasle ohiak

La Merced ikastetxean ikasi duten ikasleen afari bat antolatu da Arrasaten. Datorren martxoaren 21ean izango da. Izenak emateko Hire dendara jo dezakezue.

Hitzaldia

• Kontsumismoa


Datorren 26an, arratsaldeko hiruretan "Publizitate eta kontsumismoa" gaiari buruzko hitzaldia izango da AEDn. Ekin emakume taldeak antolatzen duen hitzaldi honetako emailea Luis Belaustegi izango da.




Liburuak

• "Antzinakoak"

Liburu honetan Karmelo Urdangarinek galtzear dauden 25 lanbideren berri ematen du. Oso interesgarria, aldaketaz arduratzen direnentzat.






.....
Azken kongresuan erabilitako lema kontutan hartuta, 'Euskal Sozialismoaren alde' alegia, PSOErantz hurbiltzen ari garela esan dute askok. Hori ez da horrela, gu partidu euskaldun bat garelako eta PSOE, berriz, ez. Beste kontu bat da, bi partiduon arteko harremanak, eta batez ere biak Internazional Sozialista barruan egonda, bultzatzea.

EEK eta PSOEek badute gauza amankomunik, eta zenbait gaitan elkarlanerako bideak irekitzea komeni zaigu bioi. Horrek ez du esan nahi biok bat egingo dugunik. (...)


Auñamendikoak EEn zeudenean argi ikusten zen alderdiaren alde lanean ez zebiltzala, partidua apurtu nahi zutela. EAekin harreman estuak zituztela argi zegoen. Harreman horiek gero eta nabariagoak dira, ez dakidana da EUEk eta EAK bat egingo duten, edota hauteskudetarako koalizio bat osatuko duten”.

(Albaro Esparzak Berrigara astekarian. 1992-2-14)



.....
Arrasate Kooperatiba taldearen egungo egoera erditze-aldikoa da, orainarte ezezagunak ziren eskakizun eta beharizanetara egokitzeko unea; horregatik, alde askotatik esperantzatsua, baina baita arduratzekoa ere. (...) Bazkideentzako bi aholku: Lehenik, utzi kooperatibismoa zure bizitzako nahi bakarra banaka haztea baldin bada. Bigarren, hala ez bada, hartu berriz indarrez Lana, Batasuna, Solidaritatega, Erantzukizuna, Austeritate eta Elkarrenganako Laguntza bezalako balore moralak, gure esperientziaren azken esentziaren adierazgarri bait da”.

(Alfonso Gorroño goitiak TU-Lankide aldizkarian)



Zer eragin izango du siderurgiaren birmoldaketak Deba Garaian?


Siderurgian hiru azpisektore desberdin ditzakegu: siderurgia osatua, altzairu arrunta eta altzairu berezia.

Siderurgia osatuarentzat, Bizkaiako labegarientzat kasu, etorkizuna oso beltza da. Altzairu arrunta edo siderurgia txikiaren sektorea, Bergarako labegaraiak esaterako, oso ondo birmoldatu den sektorea da. Aurrea begira sektore hau ondo prestatuta dago. Altzairu bereziaren azpisektorearentzat, Acenor taldekoentzat edo Legazpiko Patricioentzat, ez da etorkizun onik somatzen. Seguruen, lantegi asko itxi egin beharko dira eta murrizketak izango dira. Dena dela, zabalik geldituko diren lantegiak oso konpetitiboak izan daitezke.

Sektore horiek, ez dute eragin zuzenik Deba Garaian; bai, ordea, zeharkakoa. Horien birmoldaketa ondo egiten bada, hemengo lantegietakoa ondo egin ahal izango da, birmoldaketaren beharra dago eta: enpresa txikiak, sakabanatuak, espezializatorik gabe... eta guzti horri konponbidea eman behar zaio.

Arazoari orain lau-bost urte eman behar zitzaion konponbidea. Orain arteko pausuak kaskarrak izan dira, baina prozesua irekita dago eta ikusi egin behar zer gertatzen den. Azkenean ajustek egin beharko dira, atzerri kapitala sartuko da, orain arte onartu ez den alternatiba, eta nolabait aurrera aterako da.

MIKEL NAVARRO,
EKONOMI ZIENTZIAN DOKTOREA



EGVZKIGRAF

Grafikagintza. Tipografia. Offset industrialia

Basabe bidea, A-2 ARETXABALETA Tfnoa: 79 29 41

- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Liburuskak
- Merkatal inprimakiak
- Bulegoko materiala



**PINTURAK eta
PAPEREZTAPENAK**

Aragoi, 6-3. Esk.
ARRASATE Tfnoa: 77 00 39

ESTETIKA ZENTRUA

lurrundegia, opariak, jostailuak

Z a r r a o a

Kanpantorpea, 4 Tfnoa: 79 12 19

Aramaio

• Sokatira

Arabako txapelketaren barne, Aramaiko sokatira taldeak beste saio bat antolatu du datorren 22rako. Arratsaldeko 6.30etan hasiko da eta bi kategoria bereiztuko dira, gizonezkoena eta emakumezkoena.

• Jubilatuen elkarteak

Jubilatuen elkarteak, Mendizorrotzan ospatuko den jubilatuen urteko bilera dela eta bidai bat antolatu du datorren 25erako. 3.30etan irtegan da geltokitik.

• Ikasleen garraioa

Aramaiotik kanpo ikasten duten ikasleek aspalditik dituzte garraio arazoak. Udaletxeko azken ohizko bileran, gai horri konponbidea ematea erabaki da. Hala ere, erabaki gabe gelditu zen nola. Arazo larriena instituto eta eskola politeknikoan ikasten ari diren ikasleak izaten dituzte. Orain arte Almeneko autobusean etortzen ziren, baina orain ezinezkoa da ordutegi desberdina dutelako.



Aretxabaleta

• UNAI proiektua

Hasiak dira dagoeneko Aretxabaletako Hirugarren Mundu Taldeak eta Aretxabaletako herriak emandako laguntzaz Indiako Gujaterako Unai Eskualdean egin asmo zituen lanak. Jasotako laguntza 1.350.000 pztakoa da dagoeneko. Iñazio Galdos misiolari atxabaltarra da Aretxabaletako herriak bidalitako dirua antolatu duena, eta Indiako bertako arraza osatzen duten Adivasiaren pobrezia eta langabezia egoera larriari neurri baten aurre egitea lortu da dagoeneko. Hamar herritan eskolaurreak martxan jarri dira eta arroza landatzeko lurra lautzen, eta ur potzuak ere eraiki dira. Guzti horrekin, bestela lanera hirira alde egin beharrean daudenetik 100 langileri eman zaio laguntza eta monzoiak hasten diren garairako utzi da zuhaitzen landaketarako asmoa.

Proiektua lau urtetan zehar burutuko da eta aurrekontu guztia hamasei milioikoa da guztira. Norbaitek laguntza eman nahi balu, Lankide Aurrezkiko 038.0.04435 eta Kutzako 100495 zenbakietan egin dezake dirusarrera, eta lanen nondik norakoaren informazio guztia zuzenean jasoko du.

Bergara

• Enpresen egoera

Udaletxeko ongizate sozialerako batzordeak sozialogo bat kontratatu du bertako enpresen egoera aztertzeko. Honen bidez, postu berriak zeintzuk izan daitezkeen eta zahartuta zeintzuk geratzen diren jakingo da. Emaitzak ezagutu ondoren, INEMeko langabetuen kopuru bat enpresetan integratzea espero da. Horretarako ekonomia maila desberdinetako pertsonen eritziak jasoko dira.

• Autobus geltoki berria

Foru Aldundiak autobus geltoki berria egiteko ikertze lanak hasi ditu. Tokirik proposena saihebidetaren eta Santa Marina zubiaren artean izango litzateke. Hala ere, Pesa konpainiak udaletxearen erantzunik datozen hiru urteetan izaten ez badu, saihebidetaren bi aldetan tiki-lak jarriko ditu. Geltoki zaharra suntsitzeko proiektua bukatua dagoenean, ikusten denez, oraindik berria eraikitzeko lanen proiektua aurreikusitako gabe dago.

IZAGIRRE
barategia

Bañez Dk., 18 ARRASATE
Tfnoa: 79 59 86

• **Txitxinpe** •

Berezitasunak:
Kafea, ardoa, urdaitegia,
fruitu lehorrak

Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tfnoa: 79 67 76

HUETO Doktorea

**Eztarria, sudurra,
belarriak**

Ordua eskatzeko: 79 81 11
79 81 00

Olarte kalea, 43 Arrasate



ETXEPARE - BILINTX

LIBURUDENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai, 12 BERGARA Tfnoa: 76 40 50

EAJ-ren ez ohizko batzarra

Datorren asteartean, EAJ-k batzar ez ohizkoa antolatu du Gipuzkoako ordezkarien hautaketa egiteko. Batzokian izango da arratsaldeko 7.30etan.

Igerilekua itxiko

Euskal Gobernuaren osasun araudia dela eta, 24tik martxoaren 2ra arte, datorren aste osoan igerilekua itxita egongo da, igerilekuan egokitze lanen batzuk egin behar dituztela eta. Egunero igerilekura joateko aukera dutenek ez daukate zertan kezkatu, aste horretan Aretxabaletako igerilekura joan ahal izango dira. Horretarako, nahiko izango da karneta aurkeztea.

Otoitza San Frantziskon

Arrasateko eliz-komunitatearen otoitza izango da datorren ostegunean, hilak 27, San Frantzisko eleizan gaueko 9etatik aurrera. Interesatu guztiei agertzeko gonbidapena luzatzen zaie.

Hilerri berriaren aurka

Gaurko Aldai hilerrian panteoia du ten panteoien jabeak elkarte batean bildu dira euren interes amankomunak defendatzeko. Hilerri berrian beste panteoi bat egiteak gastu handia ekarriko lukela eta gainera ez dute argi ikusten obra berri horren beharra. Kontratatu duten abogatu baten bidez, udaletxekin harremanak izaten dituzte. Bertatik irtenbide batzuk planteatu dira: terreno berdina ematea edo beharbada erdibana pagatzea. Itxadon egin behar.

ONGIETORRIA JAIÖBERRIEI

Leire Gamito Gomez, otsailaren 10ean.
Markel Iriondo Isasmendi, 10an.
Melissa Tellexea Zandia, 11n.
Ane Jimenez Urrutia, 15ean.

Txandaka

TRATU BERDINTASUNERAKO EKINTZA POSITIBORAKO NEURRIAK DIRELA ETA...

Zaila da une hauetan "Berdintasunaz hitzegitea, Era-kundeetatik banderatzat hartu dela dirudienean.

Berdintasuna hitza, agintedun erakundeek deskubritu dutela ematen duenean erabiltzen diren beste asko bezala, arriskutsua izan daiteke. Eta arriskutsua diogu, batzutan irudi bat saltzen saiatzen bait da, sakoneko arazoetara jo barik.

"Autonomi Elkarteko emakumeen Aukera eta Tratu Berdintasunerako Ekintza Positiborako Neurriak" irakurtzean, gutxi geratu zaigu erans-teko eta gainera ez daukagu nahikoa leku aipatu Berdintasunerako planean ageri diren puntu bakoitza kritikatzeko, baina bai gauza batzuk puntualizatzeko:

• Zenbat urte daramate Asanbladetan antolatutako emakume taldeek hori bera eta plan horretan jasotzen ez diren beste gauza batzuk eskatu eta esplikatuz?

• Beharbada ez genuen hain polit eta txukun jarriko, baina hor adierazten diren hainbat ildo orokor, emakume taldeetatik hainbeste aldiz errei-bindikatuak, aurrera eramateko, leku hestu eta ahaztu bat baino ez digute utzi, eta bertan geure bitartekoez



Asun Ibabe (*)

bakarrik borroka egin behar izan dugu.

• Oso argi dugu emakumeentzako egindako lege, lan, dossier, plan eta abarrak beharrezko direla, baina beti inutilak, soldata bat justifikatzeko edo egoera batetaz baliatzekeo bakarrik egiten dituztenen bulegoetan egonean badaude.

• Berdintasuneko "legeak" egon arren kalera jetxi eta tratu txarrak jasaten dituzten emakumeen eta emakume bortxatuen ondoan egongo den indar bat behar dela salatzen jarraituko dugu, lan duinetarako sarbiderik ez duten emakumeen edo horretara iritsi arren euren ama, emazte, zaintzaile, etxe zapaltzaileko erregina bakar papera betetzen jarraitu behar duten emakumeen ondoan; nahi barik haurdu geratzen diren emakumeen ondoan; ama ezkongabeen ondoan; lesbianen ondoan; euren nagusien soldata iraingarri eta lotsagarria "onartu" beharrean dauden etxeko langileen ondoan; gizarte matxista eta patriarkal baten arrazoiek itota dagoen milaka emakumeren eguneroko garrasiaren ondoan.

(*) EMAKUMEEN ASANBLADAKO PARTAIDEA



ERRASTI KRISTALDEGIA


Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
akzesorioak

Olarte kalea, 47 behea. Tfnoak: 79 22 55 / 79 14 25

J. M. Heriz

Konpromezurik gabeko
aurrekontuak

Otalora Lizentziatua. Arrasate



Urkulun dagoeneko ura fluoraztatzeko tresneria jarrita dago.

Urkulun ura fluoraztatzeko prest

Eguzkik fluorazioari buruzko kanpaina bati ekingo dio

Urkuluko uraren fluorazioa dela eta, Eguzki ekologista taldeak datorren astetik aurrera fluorazioaren inguruan informazio kanpaina bati ekingo dio. Oraindik martxan ez dago, baina Urkuluko ura fluoraztatzeko tresneria jartzea ia bukatu dute. Tresneria hori jartzeko lanek 39 milioiko aurrekontua izan dute eta %85a subentzioen bidez ordaindu da. Jakina denez, normalean Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Bergaran erabiltzen da Urkuluko ura; sikutea dagoenean Oñatin, eta obrak burutzen dituztenean Antzuolan ere erabiliko da.

30.000 biztanlek baino gehiagok edan behar duen ura fluoraztatzea behartzen duen dekretoa, 1988ko martxoaren 1ean onartu zen. Dekretuaren helburua karies-aren aurkako prebentzio politika egitea bazen ere, lehen unetik polemikoa gertatu zen. Izan ere, senda-

gileek, ura fluoraztatzearen komenigarritasunaz hitz egiterakoan ez zuten eta ez dute adoztasunik erakutsi. Ekologistek, hasiera-hasieratik ura fluoraztatze-
ra behartzen duen dekretoaren aurkako jarrera azaldu dute "sistema horrekin, nahi ez duenak ere botikak hartu beharko dituelako eta gainera herrialde aurreratuenetan dagoeneko uraren fluorazioa baztertuta dagoelako".

Jarrerak horrela, Eguzki taldeak Arrasate eta Bergarako Udalei, Mankomunitateari, Arartekoari eta Osakidetzari dekretoa bertan behera uzteko ahaleginak egitea eskatu zioten. Eguzkikoek diotenez, erantzun baten zain egon diren bitartean, Urkulun ura fluorazteko planta egin omen dute. Ondorioz, Eguzkik kanpaina honetan, erakundeei bailadako biztanleei uraren fluoaziari buruzko informazio zabala emateko eskatuko die.

Usteak uste

Igaro berri dugu San Balentin eguna. "Gaur atzo baino gehiago maite zaitut baina bihar baino gutxiago" esanaz eraztun, belarritako edo beste edozein bitxi oparitu dizu/diozu? Zorionak! Maitemindurik dago/zaude. Eta oparirik ez badago? ez al dago maitasunik?

Egia esan ez dakit egun hori nork asmatu zuen, eta opariak egin beharra jendearen buruan nork sartu zuen ere, baina uste dut merkatariak ez zirela urruti ibiliko. Gainera, alde kontsumista alde batera utzirik, ez al dauka matxisimo kutsu bat ere? Horren inguruan izan diren iragarkietan (telebista, aldizkarietan ...) mutilak ematen dio oparia neskari (paper aktiboa) eta neskak irrifartxo batez oparia hartzen du (paper pasiboa).

Baina gaur San Balentin eguna aipatzen badut ez da kritika bat egiteko, bikotearekin zerikusi duen beste puntu bat ukutzeko baizik, hain erromantikoa ez bada ere: kontraturik gabe, hau da, ezkondu gabe, elkarrekin bizitzea erabaki duten bikoteen eskubideak. Bakoizaren arrazoiak, edo sinismenak edo sinismen ezak alde batera utzirik, kontratu edo kontraturik gabe, ez al gara maila bereko bikoteak? Zergatik batzuk eskubide batzuk eta beste batzuk ez? Horra hor, beste askoren artean, San Balentin dela edo ez dela, egin daitekeen erreibindikazio bat, gainera Arrasaten bertan hiruzpalautik gora bagarela esango nuke, eta beti esan ohi da "elkatasunean datzala indarra", nor animatzen da?

AMAIA JAUREGI-ARRABURU

ITURRIOTZ taberna

GIRORIK

JATORRENA !!

Tfnoa: 79 16 04



**SAMEGO
GARBIKETAK**

Uriburu, 24

ARRASATE

Tfnoa: 79 70 39

“Antzinakoak” liburuaren aurkezpena Otoran

Joan den astean Otoran, “Antzinakoak” liburuaren aurkezpena egin zen, Karmelo Urdangarinek idatzi duen liburuarena hain zuzen ere. Urdangarinek esan zuenez, liburua, XVIII. mendeko lanbideak XX. mendean bizirik dirautela ikustearen ondorioa omen da. Bere lana, batez ere, industria eta arrantzu munduetara mugatu zela adierazi zuen egileak. Artikuluei buruz hitz egiterakoan, berebiziko garrantzia eman zizkion liburuan agertzen ziren argazki zaharrei.

J.M. Larrañagak, Otoran - Ikasbideren izenean Karmelo Urdangarin zoriontzeaz gain, 2000 ale argitaratuko zirela adierazi zuen eta 1.500 PTAtan salduko zela. Jose Mari Ormaetxeak ere, eskerrak eman zizkion Carmelo Urdangarini egindako lanagatik.



Aurrekontuak onartzeko lehenik plenorako deialdia egin beharko da.

Aurrekontuak atzerapenez

Otsailean onartzea oso zail ikusten da

Gauzak nola dauden ikusita, ez dirudi otsaila bukatu aurretik Arrasateko Udalak 1992. urteko aurrekontuak onartu ahal izango dituenik. Ohizko prozeduraren ondorioz, oraingoz batzorde desberdinetako aurrekontuak eginda daude, baita batzordeek aurkeztutako aurrekontu guztien lehen errepasso orokor bat ere. Urtero gertatzen den bezala, batzordeetako aurrekontuetan oraindik murrizketak egin beharko dira, denek goitik jotzeko ohitura bait daukate.

Murrizketak egiteko, kasu batzutan

gehiketak, negoziazio fase bati emango zaio hasiera. Udaleko iturriek ziotenez, negoziazio horien aurrean, Diputazio-ko aurrekontuak geldirik egoteak eragina izan dezake Arrasatekoak onartzeko orduan. Zentzu horretan Ino Galparsororen, HBko zinegotzia eta hazienda batzordeburuaren hitzetan, “EAJren batzordeak izan dira azkenak aurrekontuak aurkezteko orduan. Horrek zerbait esan nahi duen? ofizialki inork ez du ezer aipatu”. Beraz, zerbait atzeratuta baina badirudi aurrekontuen gaia aurrera doala.

HITZALDIA

PUBLIZITATEA ETA KONTSUMISMOA




Emaila: **LUIS BELAUSTEGI** (Soziologoa)



Otsailak 26 asteazkena
Arratsaldeko 3etan AEDn
EKIN emakume taldea





Tituloen banaketa EPkoko areto nagusian egingo da

Masterren titulu banaketa EPan

Eli Galdos eta Paulino Luesma izango dira bertan

Hilaren 28an Eskola Politeknikoko areto nagusian, Produzio-Zuzendaritzako eta Industri Automatizazio Sistemetakoko Master programaren amaiera ekitaldia burutuko da, arratsaldeko 4.30etatik aurrera. Ekintzaren aurkezpena, Eskola Politeknikoko Zuzendari Orokorrak egingo du, Ignacio Lakunzak. Ondoren, Javier Mongelos, Kooperatiba Taldeko Lehendakariak "Hezkuntza eta berrikuntza, aldakuntzaren eragileak" gaiari buruz hitz egingo du. Javier Mongelos-i Paulino Luesma Eusko Jaurlaritzako Lan eta

Gizarte Segurantzako Kontseilariak hartuko dio txanda, enplegu-gaikuntzari dagokionean Lan-Sailak duen politika azaltzeko. Hasieran aipatutako bi master-programen tituloen banaketari ekingo zaio gero, eta ekitaldiari Gipuzkoako Diputatu Nagusiak Eli Galdosek emango dio amaiera.

Produzio-Zuzendaritzako masterean hamazazpi pertsonak hartu dute parte, Industri Automatizazio Sistemetakoa, berriz, hogeitahiruk. Aurten, Industri Automatizazio Sistemetakoko masterra antolatu da bakarrik.

Berrabiltze proiektua San Andresen

Hiru urte direla, Suradesa elkarte anonimoak, San Andres-eko berrabiltze proiektua aurkeztu zuen udaletxean. Orain bigarren fasean sartu da jadanik Udaletxeak, hasiera batean esperientzia piloto bezala onartu zuena, orain, auzoko % 80ak azaldu dituen proposamen eta arazoak kontutan hartuz, proiektua juridikoki tratatzeko fasea hasi da. Helburua bizi kalitatea hobetzea da, horretarako igogailu berriak, isolamentu termikoa, kanpo aldeko obrak eta abar egitea erabaki delarik.

Batzar Orokorra

AEDko ohizko Batzar Orokorra datorren hilabetean ospatuko da, martxoak 13an eta arratsaldeko 7etan, Monterronen. Ondoren, aforaria Kataide jatetxean.

Gaztetxeko berritze lanak

Lanerako tresna, morteroa, ontziak eta pinturaren artean 250.000 PTA baino gehiago erabili dituzte Gaztetxea konpontzen. Diru-kopuru hori lortzeko gazteek makina bat ekintza antolatu dituzte, eta lortutako diruarekin txukun utzi dute Frantziskotarren Komentuan duten lokala. Lokala garbitu, argi-indarraren sarea konpondu, dekoratu eta orain, insonorizatu eta nolabait berotzeko sistema baten bila dabilta. Guzti hori ordain ahal izateko, ekintzak antolatzen jarraituko dute Gaztetxean.

Construcciones ARRASATE S. L.

Udalpe, 5 Etxabehea. Erguin auzoa. Tfnoa: 79 04 46

ARRASATE



Aldundiak antolatzen duen **"Euskal Kantagintza Gipuzkoako Ikastetxeetan"** kanpainaren barruan, Aretxabaletako Udal Euskaltegian Txomin Artolak kantaldia eskaini zien bertako ikasleei. Kantaldiaren iraupena ordu t'erdikoa izan zen eta Txominek, kantatzeaz gain, bere bizitzari buruzko zenbait pasarta kontatu zituen. Ikasleek primeran pasatu zuten.



Drogomenpekotasunaren

aurkako astearen barruan ekintza ugari burutu dira, horien artean aipagarrienetakoa, Tunantes del Norte antzerki taldearen *"Dosis de pasividad"* lanaren eguneroko antzezpena. Argazkian, Iturripen egin zen emanaldia ikus daiteke, Eskola Politeknikoko ikasleek ikusteko antolatua.



Auzoetxeko ganbara bertsolari eta bertsozalez beteta eta giro atseginean izan zen joan zen asteburuan. **Andres Gabi-londok** omenaldi beroa jaso zuen bertsolari, lagun eta familiar-tekoen aldetik. Datorren urterako beste saio bat antolatzeari ekin beharko zaio orain.

FAGOR



TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN

ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA

ZANGITU

C. B.

**PINTURAK ETA
PAPER PINTATUAK**

Olarte, 29
Arrasate
Tfnoa: 79 91 82

D. Irala
Bergara
Tfnoa: 76 19 54

Izen
PROPIOAK

● **Carlos Redondo Cabero**, 44 urteko ordiziarra izango da Ikerlaneko zuzendari orokor berria, Manolo Quevedoren ordeaz. Orain arte Ikerretako Zuzendari izan da eta aurretik Eskola Politeknikoko irakasle.

● **Enrike Kabiketa** eta **Alex Saavedra** atletak ekarri dituzte azken dominak Arrasatera. Enrike Kabiketak, beterranoen mailan, krossean Euskadiko hirugarren atleta onena izatea lortu zuen; ondorioz, brontzezko domina lortu zuen. Alex Saavedra gazteak, bestalde, Euskadiko pista estaliko txapelketen barruan, 400 metrotako proban bigarren korrikalari azkarrena izan zen; zilarrezko domina jaso zuen horregatik. Proba berean, bera anaia Gabik laugarren postua lortu zuen.

● **Julen Arriolabengoa**, 32 urteko aramaiotarra izan da euskal esaera eta berba berezien lehiaketan laugarren saria eskuratu duena. Euskal filologia ikasi zuen Gazteizen.



▲
Jon Andueza eta Anne Igartiburuk izan ziren **ATB-ren programazio berriaren aurkezpeneko** jaialdiaren haria eraman zutenak. Ikusentzule ugari izan zen eta programa ezberdinak eta ATBren historia aurkezteko erakutsi ziren bideoek maila polita izan zuten.

Jaialdian zehar, bertsoaia, Goikobaluko talde baten ekitaldia eta **Ruper Ordorika** eta **Joseba Tapiaren** emanaldia ere izan ziren. Azken bikote horren emanaldia, gainera, badirudi elkarlanean egingo duten bidearen lehen azalpena dela. Musikak irtengo du irabazten.



ZURE KONFIDANTZAZKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55

INPORTANTE

Traducción de la circular transmitida por la central de carabineros en Italia, y recibida por fax a través de uno de nuestros proveedores italianos.

**INPORTANTISIMO
LEER ATENTAMENTE**

COMUNICADO HECHO CIRCULAR DE LA CENTRAL DE CARABINEROS ITALIANA

El departamento de policía de Nueva York pone en guardia contra **NUEVOS TIPOS DE DROGA QUE VIENE Y OFRECIDOS A LOS NIÑOS**

Hoy probablemente estarán ya en circulación en Suiza y pronto invadirán el resto de Europa. En todos los U.S.A. es vendida una calcomania llamada "BLUE STAR" (estrella azul). Se trata de un pequeño folio de papel blanco que contiene estréllitas del tamaño de un lápiz. Cada estrella lleva incorporado L.S.D. y se puede aplicar con saliva.

Usadas de esta forma el L.S.D. entra inmediatamente en circulación. También será absorbida a través de la piel simplemente manoseando el papel.

También se encuentran en circulación figuras de colores muy brillantes en forma de sellos. Estos sellos están ilustrados con figuras de Superman, personajes de Walt-Disney, caricaturas payasos y similares. Están confeccionadas en cartoncillos rojos envueltos en celofán; conteniendo cinco folios con un total de 10 sellos. Las calcomanias son regaladas a los niños por muchachos mayores por simple diversión y por adultos para la obtención de nuevos clientes.

Se distribuyen otros tipos de sellos: El primero es llamado "RED PIRAMID" (pirámide roja) y está adornado con puntitos multicolores. El segundo "WINDOW LANE" (ventana) está adornado de una parrilla que puede ser despegada. También están tratadas con droga.

Por favor informar a vuestros niños de estas nuevas drogas. Si vosotros o vuestros hijos veis estas figuras no las toquéis, son peligrosas y frecuentemente están tratadas con estricnina.

Los efectos son: alucinaciones, conatos de vomitos, repentino cambio de humor, variaciones de temperatura. En caso de necesidad, desplazarse al hospital más cercano e informar inmediatamente a la policía.


Si es posible, fotocopiar y divulgar al máximo.



MINISTERIO
DE JUSTICIA



Musakolako Gasolindegirako sarrera ez dago behar bezala. Hortik PESAKo autobusak, auto ugari eta gasolindegira joaten diren kamioiak pasatzen direnez, **sarrera zuloz beteta** dago. Ibilgailuentzat gaizki badago ez da aipatu behar oinezkoentzat askoz ere okerrago dagoela. Sikiera ipinki batzuk jarriko balituzke!



Joan den larunbatean, **Zuhaitz Eguna** burutu zen Garagartzako Udal Mintegian. Goizean herriko plazatik aterata, zuhaitzak landatzera ume piloak abiatu zen Garagartzarantz. 150 landare inguru landatu eta gero, auzoko plazan bildu ziren umeak ogitartekoa jateko. Udal Mintegiak, txikia izanda ere, itxura ederra erakusten zuen.

Orain dela egun batzuk, **drogaren zabaltze** berri baten modua azaltzen zuen agiriak banatu dira ikastetxe askotan. Agirian, L.S.D. erantsia duten kalkamonien deskribapena egiten da, Kalkamoniek izan dezaketen forma desberdinak aipatzen dira: Superman, Walt Disney, Red Piramid edo Window Lane izen eta marrazkiak agertzen dutenak. Osakidetzako eskualde zuzendaritzak zabaldu berri duen eskutitz baten bidez, aurreko agiriari balio osoa kentzen dio, benetako gertakizunetan oinarritzen ez dela argudiatuz. Aurrerantzean, antzerakorik gertatukio balitz, bide ofizialetik jakin eraziko dela adierazi dute.


Construcciones ARRASATE S. L.

Udalpe, 5 Etxabehea. Erguin auzoa. Tfnoa: 79 04 46
ARRASATE



Geroa bistan

Ikusle ugari biltzen da astero astero Zaldibar inguruan. Gehienak txapelketan sartuta daudenak badira, zahar eta ume dexente ere agertzen da: haiek iragandako garaiak gogoratu eta denbora pasatzeko; hauek, berriz, kanpora ateratzen den baloiren bat harrapatu ahal izateko. Etorkizuna bertan duzue.



ERROTA-GAIN Aluminioak

**Aluminiozko leihoak
(haustura termikoa)
eta PVC**

Altos Hornos-Azkarruntz auzoa BERGARA Tfnoa: 76 32 40 Faxa: 76 32 41



A taldea

	Partiduak				Golak		Punt. guzt.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Akaitegi Express	13	9	3	1	105	34	21
Los Heredia	13	9	3	1	79	42	21
Fosforos	13	8	2	3	62	33	18
Adobe	13	8	2	3	46	38	18
Zulu's	13	9	0	4	89	44	18
G.P. Noski	13	6	4	3	61	32	16
Jubilatus	13	5	3	5	54	67	13
Kriskibalda	13	5	2	6	53	43	12
Koxkas	13	4	4	5	48	65	12
Sum. Ind. Ugarte	13	5	1	7	40	50	11
A. Kristaldegia	13	5	1	7	35	44	11
Uglys	13	3	1	9	38	76	7
B. D. L.	13	1	1	11	28	98	3
T. San Josepe	13	0	1	12	28	100	1
Expert	—	—	—	—	—	—	—
Los Manchas	—	—	—	—	—	—	—
Neanthertal's	—	—	—	—	—	—	—
Tronkoteak	—	—	—	—	—	—	—
Total	182	76	28	76	766	766	182

B taldea

	Partiduak				Golak		Punt. guzt.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
La Banda	13	10	1	2	63	24	21
Fasprint	13	8	3	2	56	27	19
Los Motz	13	9	0	4	79	32	18
Danok Lagun	13	8	2	3	53	28	18
Jo ta akabau	13	8	2	3	46	29	18
Lorategi Potroak	13	7	3	3	63	34	17
Sibilus Rover	13	7	3	3	39	31	17
Navarros	13	7	2	4	42	29	16
Anbotoste K.T.	13	4	2	7	35	61	10
Txintxes Osorik	13	4	2	7	30	50	10
Ganbelas	13	3	1	9	29	47	7
Inter de Alimañ.	13	2	1	10	35	80	5
Bukanak	13	2	1	10	35	68	5
Oleee!	13	0	1	12	25	90	1
Maria del Monte	—	—	—	—	—	—	—
Gau Azkenak	—	—	—	—	—	—	—
MKA	—	—	—	—	—	—	—
Totxus	—	—	—	—	—	—	—
Total	182	79	24	79	630	630	182


SAILKATUAK

C taldea

	Partiduak				Golak		Punt. guzt.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Adelaida Haizea	16	13	1	2	78	19	27
Argi Ibili Mapre	16	13	1	2	119	44	27
Gnu Seg. Bilbao	16	13	1	2	54	14	27
AEK	16	10	3	3	64	46	23
Bar Kajoi	16	11	0	5	83	31	22
Diego Antonio	16	10	2	4	63	45	22
New Laso Arregi	16	9	2	5	57	39	20
Txokeros	16	6	3	7	52	45	15
Aizpun bila	16	7	0	9	62	82	14
ATB	16	6	2	8	59	72	14
Sokoakoak	16	5	3	8	48	61	13
Aurrera Bolie!	16	4	2	10	44	67	10
Arrasate Press	16	4	2	10	35	62	10
T. Monterrey	16	2	5	9	46	87	9
Bayer de Leniz	16	2	1	13	36	94	5
Shaktale	16	2	4	10	36	77	8
Whiskeria Linde	16	3	0	13	51	100	6
Alaves	—	—	—	—	—	—	—
Total	272	120	32	120	985	985	272

D taldea

	Partiduak				Golak		Punt. guzt.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Artzankos	14	12	1	1	67	26	25
A. Kirolak	14	11	1	2	58	26	23
Pepelus	14	9	2	3	52	29	20
V. C. Daglas	14	8	3	3	71	24	19
Notxingan Flo.	14	9	0	5	52	42	18
Hirei	14	8	1	5	52	35	17
Artano	14	8	1	5	56	45	17
Bizkorrak	14	7	1	6	48	39	15
Ghana	14	7	1	6	51	40	15
Arrasate Com.	14	6	1	7	28	40	13
Nagixak	14	3	3	8	32	57	9
Kakajauri	14	3	4	9	31	50	8
Ezkinako Hon.	14	3	2	9	31	68	8
Atxanta ke te...	14	1	0	13	21	87	2
Sukumurus	14	0	1	13	20	61	1
Camerun's	—	—	—	—	—	—	—
Balaik	—	—	—	—	—	—	—
Resakas	—	—	—	—	—	—	—
Total	210	94	22	94	670	670	210





Behin baino gehiagotan aipatu da hemen bertan futbitoan atezainaren lanak izugarriko garrantzia duela. Ez da oso normala, baina atezain batzuk, atea zaintzeaz gain, baloia jokatzeke joera izaten dute. Ondo eginez gero, ederki, baina arriskua ere areagotu egiten da. Horrelakoak ikusita *Higuitaren* izena datorkigu burura.



Iturriotz, 7 Tfnoa: 79 04 67
ARRASATE

EMAITZAK

A taldea

Koxkas 1 Talleres San Josepe 0
Jubilatus 3 Uglys 7
Akaitegi Express 6 Sum. Ind. Industriales 3
Kriskibalda 3 Arrasate Kristaldegia 5
Zulu's 13 BDL 5

B taldea

Los Motz 5 Fasprint 1
Potroak Lorategi 8 Txintxes Osorik 0
Bukanak 6 Inter de Alimarias 10
Danok Lagun 2 La Banda 1
Navarros 1 Jo ta akabau 1

C taldea

Diego Antonio 7 AEK 1
Aizpun bila 11 Whiskeria linde 1
Sokoakoak 3 Aurrera bolie! 1
New Laso Arregi 5 Shaktale 1
Monterrey Taberna 5 Arrasate Press 5
GNU Seg. Bilbao 1 Bar Kajoi 1
Txokeros 2 Adelaida 2
Bayer de Lenitz 2 Argi ibili Mapfre 6

D taldea

Nagixak 3 Kakajauri 3
Pepelus 5 Arrasate Comercial 3
Sukurmurs Anboto 2 Abxanta ke te merece 4
Artzankos Udalaiz 6 Bizkorrak 5
V. C. Daglas 2 Ezkiñako ontzak 3
Notxingan Florest 5 Hirei 3

EDERRA

TABERNA

Iturriotz, 12
ARRASATE
Tfnoa: 79 96 25

Jovi

Ferrerias, 35 ARRASATE Tfnoa: 79 12 87

Pintura ekologikoak

Diferentzia: zure osasuna


Zoru arinak. Saipolan. Ceflex. Neurritarako felpudoak. Pertsiana biribilkagarriak. Ehunezko horma-takoak. Kortxoak. Moketa losetan.

RUMBA

taberna

Iturriotz Kalea
ARRASATE

IOSEBA KONTENEDOREAK



Uriburu, 23. 4.a eskuma.
Tfnoa: 79 61 18

ARRASATE



Txutak

Lehen fasearen amaiera

.....

Zaldibarko futbito txapelketako antolatzaileen asmoak egi bihurtzen badira, datorren urtean txapelketan talde gutxiagok hartuko dute parte. Izan ere, zer eginik ez zutela ikusita, azken ihardunaldietan talde ugari bertan behera utzi du txapelketa. Horren ondorio zuzenenak, sailkapenean eman diren aldaketak izan dira; batzuen mesederako eta beste batzuen okerrerako.

Egoera horrek, antolatzaileei sailkapenak egiteko orduan zailtasun gehiago jartzeaz gain, txapelketa nolabait faltsutu egiten du, erretiratutakoen aurka irabazi zutenak izerdi handiz ateratako bi puntu galtzen dituztelako;

kasu askotan, erabakiorrak izan zitekeen bi puntu. Gauzak horrela, datorren urtean, *Los Manchas, Neanthertal's, Tronkoteak, Expert, Maria del Monte, Totxus, MKA, Gau Azkenak, Alaves, Balaiké, Cameruns Trikiti* eta *Resakas* seguruen ez dira Zaldibarren izango.

Aipa dezagun lehenengo faseari amaiera eman zitzaiola eta orain txapelketa 24 taldeen arteko gauza dela, hiru multzotan banatuko diren taldeena hain zuzen: *Akaitegi Expres, Los Heredia, Fosforos, Adobe, Zulu's, G. P. Noski, La Banda, Fasprint, Los Motz, Danok Lagun, Jo ta akabau, Lorategi, Adelaida, Argi Ibili, Gnu. Seg. Bilbao, AEK, Kajoi, Diego Antonio, Artzankos, Arrasate Kirolak, Pepelus, V. C. Daglas, Notxingan Flores* eta *Hirei*.

Azken ihardunaldiko **tongo**-ez ere, zerbait esatea komeniko litzateke, baina frogarik ez dagoenez... ixildu egin behar.

DATORREN ASTEAN

A taldea

Bar Kajoi	Fasprint
La banda de Pepe	Los Heredia
Argibili	Hirei
Notxingan Flores	Fosforos

B taldea


Arrasate Kirolak	Adelaida
Los Motz	Adobe
Akaitegi Expres	Danok Lagun
GNU Seg. Bilbao	AEK

C taldea

Artzankos	V C Daglas
Lorategi Potroak	Diego Antonio
G P Noski	Pepelus
Zulu's	Jo ta akabau!

• **Arimazuri** •
dastapenak
ZABALIK GOIZEKO
SETATIK

Arimazuri plaza / Loramendi, 6
ARRASATE
 Tfnoa: 79 80 44




EGIDO

Automobilarentzako
 ordezeko piezak

Legarre Pabilioia.
 ARRASATE Tfnoa: 79 62 11

GOZOKIAK • KAFEA



AKELARRE

ESKUZ EGINDAKO GOZOKIAK

Tartak, pastel txikiak, pastel bereziak,
 gurinezko pastak, opiltxoak, ezkontza-tartak.

ENKARGUAK: 77 00 71 tfnoan.

Zarugalde, 54 ARRASATE

M E S O N
 M A N O L O

Eguneroko
 janariak eta
 enpresa bazkariak

Bañez Dokorea z/g

zatez donostiarra, 56 urte rain 28 etorri zen Arrasatera, eta didaktikarako bere zaletasuna dela eta, Eskolako irakasle ibili ondoren, Ikerlaneko zuzendari izan da azken 17 urteotan. Orain Arrasate Korporaziora doa lanera Garapen Teknologiko eta Kalitate Departamentuko zuzendari gisa.

— Nola gogoratzen duzu etorri zinenean Eskolan zegoen giroa?

— Gu zorionekoak izan ginen, eta ez Don Josemariagatik bakarrik. Zerbait erakitzen ari zarenean, zerbaiteko partaide izatean edukitzen den sentsazio hori genuen.

— Nola sortu zen Ikerlan?

— Ideia primario samarretik. 1968an sortu zen lehen enbrioia. Aurrerapen teknologiko handien garaia zen eta Eskolaren barruan I+Dko laborategi eran sortu zen, aurrerapen teknologikoa irakaskuntzara hurbiltzeko helburuarekin. 74ean helburu nagusizat industriaren garapen teknologikoa izango zuen inestigazio zentrua egin zen.


— Orditik honako urratsik garrantzitsuenak?

— 82an Sare teknologikoa egin zuen Eusko Jaur-laritzak eta zentru tutelatuena figura sortu zuen, horien artean gurea. Orditik, edozein enpresatarara irekita dago Ikerlan, ez hasieran bezala Kooperatibentara bakarrik. Beste oinarri bat, ikerketa zentruen Elkartearen sortzea izan zen, 1986an. 1990ean, berriz, Eacro-ko partaide egin zen Ikerlan, Europako zentruen elkartearen beraz. Pertsonalean bakarrik hasierako bost lagunetatik gaur egungo 180etara badago alde.

— Zela laburtuko zenuke Ikerlanen filosofia?

Manolo Quevedo

Erronka berriei aurre egiteko gertu



— Garapen industrialaren euskarri teknologiko izatea. Ikerlanekin lan egiten duen enpresa bakoitzaren arrakasta bilatzen dugu, ez hainbeste Ikerlanena berarena.

— Eta arrakastaren sekretua?

— Ia-ia lehen esan dudana. Enkargua arrakastatsua izatea bakarrik bilatu behar-rean, gurekin lan egiten duen enpresa bera arrakastatsua izateaz arduratzea. Hor maitz garrantzitsuak daude: ho-

nek prezio bat balio du eta horixe ordaindu eta besterik gabe geratzen bagara, balio positiboa da egiten dugun produktua ona bada, baina enpresaren arrakasta bilatzen baduzu, enpresaren beraren beharretara sartu behar duzu eta enpresarekin askoz ere gehiago identifikatu. Bestalde, Ikerlaneko langileak profesional bikainak dira. Erdi kanpoan nagoela eta beste enpresa batzuekin ere konparatuz, batere zalantzarik gabe esan dezaket hori.

— **“Europaren ere oso entzute ona du Ikerlanek eta hori arrakastarako bermea da”**

Giza talde handi bat dauka, profesionala eta teknologia garapen industrialarekin bat izan dadin konprometitu dagoena. Ez teknologia teknologia hutsagatik, baizik eta teknologiak izan dezala funtzio bat. Gure leloa hau da: abanguardiarako teknologia enpresetara eramatea. Ez teknologia berriena, enpresak behar duena baizik.

— Manolo Quevedoren etorkizuna lan berrian?

— Nire lanak alde batetik kreatibitate lana du. Garapen teknologikoaren epigrafe horren barruan, horrek zer esan nahi duen asmatu egin behar da. Niri bezala krea-zioa gustatzen zaion baten-tzat, sartzeko unerik egokiena da. Enpresen arteko jokuarauak sortu behar dira, eta horrekin batera baterako garapen hori nola egin behar dugun ikusi. Horrek eskatzen duen irudimena erakargarria da niretzat. Erronka handia da eta gantxo berezia du, ondo egitea espero dudala bakarrik esan dezaket.

— Arrasaten daramatzun urteen balantzea egitekotan?

— Arrasate herri kuriosoa da, maitatu edo gorrotatu egingo duzu, baina indiferentzia sentitzea ezinezkoa da. Herri ezberdina da, eta egituraren enkajatzaren baduzu, aparteko gantxoak du eta ez zait kostatzen hemengo egitea. Belaunaldi berriak, Arrasaten lan egin arren beste leku batzutan bizi dira, baina guretzat, lan egitea eta bizi izatea gauza bera ziren, eta ez genuen zalantzan jarri bizi izatera bertara etorri behar genuenik. Bestalde, lehen behintzat Arrasate pertsonengan konfidantza handia jartzeari zuzentzen gaur egungo alde horretatik, beste leku batzutan normalak ez ziren aukurak eman izan zaizkigu.

Taldean bizitzea: psikiatriaren erantzun berria

"Zer desberdintasuna, han edo hemen bizi!". Lau emakume hauek oso gustora bizi dira etxe berrian. Santa Agedako ospitalean urte asko igaro ondoren, izan dute bai, handik irten eta euren bizitza egiteko posibilitaterik, beharbada beste batzuk sekula izango ez dutena.

Ospitalarekin harremana

Juana, Josefa, Leandra eta Maria Anunciacion, Aita Menni ospitalean urte asko egon eta gero, Arrasatekopolis baten bizi dira. Bost urte pasa dira ordutik, eta orduko kontuak gogoratzen dizkigute, "Pisu batean bizi izateko aukera zegoela entzun nuenean, ez nuen asko pentsatu, berehala prestatu nituen mailetak. Zelako desberdintasuna han edo hemen egotea!". Hala ere, ez dute ospitalarekin kontaktua erabat galdu. Egunero, goizeko 6.30etan jeiki eta 7.30tarako Santa Agedara joaten dira lanera, kartoiak biltzen, oheak astintzen, eliza garbitzen, sukaldean janaria prestatzen edo plantxan arizez. Bakoitzari lan konkretu bat egokitzen zaio. Honekin, betirako harremana galdu baino lehen, tarteko irtenbidea lortu nahi da.


Aurreko prestakuntza

Prestakuntza bezala, hurbileko herri eta hirietara irteera batzuk egiten dituzte, Eibar, Gasteiz, Donostia edo Arrasatera. Medikatuak, psikologoak, langile

sozialak eta erizainak osatzen dute ekipo laguntzailea. "Pisu batean sartu baino lehen funtzionatzeko eta eguneroko bizitzan iharduteko ohiturak erakusten saiatzen gara monitore bezala, gainera, hamabi hilabeteko egoki-

tze-aldia izaten dute". Lanaren truke, soldata ere ko-bratzen dute. Pisuako gastuak eurek pagatzeko, kontu amankomun batean sartzen zaie diru kopuru bat, eta aparte bakoitzaren kontua ere badute. "Hilabete batzutan izaten dugu aurrezteko dirua ere, segun eta zenbatekoak diren pisuko erreziiboak". Alokairua ospitaletik ordaintzen denez, gastutarako nahiko diru gelditzen zaiela pentsatzen da. "Bai, guk ospitaletik ordaintzen diegun soldatarekin, beste edozein pertsonak bezalako bizimodua egiteko gai izaten dira eta kasu batzutan, aurrezteko ere iristen zaie".

Azken helburu bezala, beraien jaiotako herrian integratzea izango da, bertan pisu batean biziz, hala ere nahiko zailtasun izaten dute pisu berriak bilatzeko eta gainera Arrasaten egonik, ospitalarekiko hurbiltasun hori mantentzen da. Orain ere egiten dituzte bisitak "Bai, batzutan joaten naiz Legorretara, senideak bisitatzen. Azkenengo aldiz, gabonetan egon nintzen, eta uzten badidate, San Jose zubian ere ba-



Lau emakumeen artean txandaka banatzen dituzte etxekolanak



Maria Anunciacion bere hobby handiarekin: puntuarekin

du joateko asmoa, oso gustora joaten naiz eta”.

Irtetzeko beldurra

Hala ere, nahiz eta talde honekin esperientzi ona izan, gaixo batzuk nahiko bildur agertu dute, beharba-

da bertako eguneroko bizitzan hartu dituzten ohiturak apurtzeko bildurra. *“Uste dugu gaixo gehiago ere badago elaprestatuta horrelako komunitatean bizi izateko; hala ere, askok ezetza eman digu, esperientzia berri honen izugarritzko beldurra*

ematen dielako. Izan ere, guk hasiera batean, bildur handia izan genuen, baina agerian utzi dute aurrera ateratzeko gaitasuna”.

Bestalde, lehengo lagunekin harremana mantentzen dute, Santa Agedara lanera joaten direnean, askotan bi-

sitaren bat egitea ere tokatzen zaie, euren esperientzia lagunei kontatzeko. Pisu ez dute izan oraindik kanpoko bisitarik, baina goiko pisura etortzeko diren beste gaixo batzuen espero dute egun batzuk barru.

Kaleko jendearekin

Kalera irtetzean, beste pertsona batzuekin ere erabateko harremana izaten dute *“Kaleko jendearekin oso ondo konpontzen gara, erlazio justua izaten dugu baina harremana ona da orohar”.*

Ospitaletik kanpo, beharbada arazo larriena asteburuetan izaten dute. Larunbat eta igandetan, etxeko lanak egin, kalean pasiatu, telebista ikusi....Beharbada lehengo lotura faltan botatzen dute

Testuinguru gisa

1986. urtean, Aita Menni ospitaleak proiektu bat jarri zuen martxan, gaixo kopuru baten gizarte mailako berrintegrazioa lortzeko eta objetibo orokorra Osasun mentalaren barne joera berriei egokitzea izanik.

Orain arte, pisuen bidez 14 gaixo bizi dira komunitatean eta beste 11 prest egongo litzateke horrelako esperientzia bizi izateko. Gaur egungo arazo larriena pisuak lortzea da. Orain artekoak, laguntza berezien bidez lortuak izan dira.

Balantze bezala proiektua ontzat jo daiteke, ez baita egon berriz ingresatu beharrik ez inolako kexurik. Izan ere, ospitaleak hartzen du bere gain erantzukizun guztia.

Gerora begira, gazteekin proiektua errepikatzea izango litzateke helbururik nagusiena eta horien autonomia lortu, maila batean.

**Basabe
jatetxea**

**Menu eta afariak
Boda eta banketeak**

Industrialdea
ARETXABALETA

Tfnoak: 79 91 84 / 77 07 94

**ARRASATE
PRESS**



77 05 65



91-92 denboraldiko Centraljet Euskal Air taldeko jokalaririk trebeak

Centraljet igotzeko pasearen bila

Larunbateko partiduan Aukea Sarien banaketa

Durangoko Tabirako taldearen bisita jasoko du *Centraljet Euskal Air*-ek larunbatean Musakolako kiroldegian, arratsaldeko betan. Partidu honen bidez, arrasatearrek igoyerako faseari emango diote hasiera. Mailaz igotzeko aukera baztertzen ez bada ere, zaila izango da eta saskibaloikoen helburua ahalik eta gorenen bukatzea da. Kasualitatez Centraljetek mailaz igotzeko aukera eskuratuko balu, ahalegin ekonomiko handia egin beharko litzateke, lehen mailan talde bat izateak diru-kopuru handiak erabiltzera behartzen bait du.

Helburu hori eskuratzeko, jokalarien lanaz gain, behar

rezkoa izango da zaletuen laguntza, hasteko dagoen saskibalo ligako bigarren fase honetan parekotasuna nagusi izango bait da. Partidoak lau-bost puntutako diferentziaz erabakiko direla jakinda, zaletuen animoa eta arbitroen lanak eragin handia izango du, duda barik.

Aukea Sariak

Larunbateko saskibalo partidua berez interes handia badu ere, partidoaren atsedendian AUKEA sari banaketa egiteak behar bada interes hori areagotu egiten du. Gogora dezagun, aurtengo AUKEA sari irabazleak, Sonia Txaparro eta

Centraljet Euskal Air taldea izan direla. Horretaz aparte, Zaldibarko Futbito Txapelketako antolatzaileei sari berezi bat emango zaie, azken bi urteetan jendeak kirola egin dezan lan handia egin dutelako.




Sonia Txaparro, igerilaria

Hurrengo partidua

Ez oso ondo jokatuta, ezta diferentzia handiaz ere, etagutiago ikuskizuna eskainiz, baina aspaldiko partez Mondrak Atxabalpen irabaztea lortu zuen. Balantza batean jarri ezker, erakutsitako jokoa arrasatearren aurkako bandejan egongo litzateke; zortea, gogoa eta indarra, ordea, arrasatearren aldekoa. Atxabalpen bildutakoek ezin izan zuten era bikainean jokatzen zuten Mondrarik ikusi, baina bai behintzat, ahal zuten guztietan aurrerantz jotzen zuten talde bat.

Behar bada ez ziren merzitatekoak izango, baina mondratarrek urrezko bi puntu lortu zituzten, lehen sailkatuengandik urrunegi ez jartzeko balio dutenak. Hala ere, gauzak ez daude bat ere garbi Mondrarentzat, egoera berean dauden taldeak asko eta. Orain, puntuak gehitu eta aurrekoengana hurbildu beharra dago. Horretarako, lehen zita Santutxun.

Santutxuko taldea mondratarren parekoa da. Zelaiaren hestutasuna eta egoera txarra, ikusleek zelai hartan arbitroekiko egiten duten presioaz gain, bizkaitarren alde. Aurrera baikortasunez begiratzeko ez da toki ona, baina esperantza omen da galtzen azkena.



FANCY

GAZTEEN MODA! Bizkaia Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa: 77 14 24

beatriz

oinetakoak eta poltsak

Erdiko kale, 11
Tfnoa: 79 14 3 ARRASATE

JABIER ITURBE

“Ikutixoko
potrosoa”

Auskalo Arrasateko azken harri jasotzailea zein izan zen, baina harrijasotzaile izan barik, Arrasaten harrijasotzen ibili den azken arrasateara Jabier Iturbe da. Santamas jaietan Jabierrek, Saralegi, Perurena, Gibitegi eta antzerako jendearen tokia hartu zuen. Ikutixoko baserriko semea, “Ikutixoko potrosoa”, ez zen aritu Arrasateko harri zaharrarekin, horretarako entrenamendu eta indar handia behar bait da, baina hala ere ikuskizun polita eskaini zien Santamasetan Zaldibarko frontoian bildu ziren ikusleei.

Hirurogeitamar kiloko harri borobilarekin egin zuen saioa Jabier Iturbek. “Hiru jasoaldi egitea lortu nuen. Ez zen oso samurra izan, baina ondo moldatu nintzen. Juanito Saizarrek liatu ninduen, Saralegik eta, ez zutela etortzerik eta ea neuk egingo nuen. Baietz eranizun nion eta halaxe izan zen guztia, plázara joan eta jaso, besterik ez”. Harriak hirurogei kilo zituela esan eta gero, ez dirudi bizkarrera eramateak meritu gehiegi duenik, baina kontuan hartu behar da Jabierrek 20 urte baino ez zituela eta gainera ez zuela entrenamendu saio bakar bat egin. “Baserrian ibili izan naiz noiz behinka enborrak bizkarrera ja-

PODIUMA



sozten, baina harriekin inoiz probatu barik nengoen. Harria zakarra zen, borobila eta handia; beraz, ez zuen heldulekurik. Gainera, zergatik ez esan, gau-pasa eginda agertu nintzen Zaldibarrera eta hori ere, kontuan hartzea izango da”..

Santamasetako hura, bere bizitzan harrijasotzen egiten zuen lehen eta azken saioa izan zen, ez bait dauka inolako asmorik herri-kiroletan sakontzeko. “Herri-kirolak gustatzen zaizkit, Santamasetan harrijasotzeari ez nion uko egin, “Korrika” etorri zenean sokatirari gustora ibili nintzen eta ahal dudan guztietan pilota hartu eta anaiarekin batera Iturripeko frontoietara joaten naiz, baina hortik herri-kiroletan aritzera alde handi dago”. Mutil gazte honen hitzen arabera, arrasatearrek badakite oraindik itxaron egin beharko dutela bertako harrijasotzaile bat ikusi arte, baina hau behintzat, behin ausartu zen. Horregatik, zorionak!

◆ Pilotan bikain

Azken aldean ondo dabilta Arrasateko pilotariak. Joan den asteburuan, Deba Arroa txapelketaren barruan, Oñatiko Aloña Mendiko pilotarien aurka jokaturako hiru partidua irabazi zituzten eta: infantiletan 18-10, jubeniletan 22-12 eta nagusietan 22-15. Euskal Ligaren barruan Idiazabalgo Atxurbide taldekoak ziren arerio eta arrasatearrek 22-12 irabazi zuten. Datorren asteartean, hilak 25, Deba Arroa txapelketan Arrasatek Bergararen aurka jokatu du.

◆ Emakume futbolariak galdu

Mondrak ezin izan zion Donostiako Alde Zaharra taldeari irabazi Atxabalpen. Justu samar baina 1 eta 2 galdu zuen. Datorren astean, berriz ere Atxabalpen jokatu dute arrasatearrek, Dunboa taldearen aurka oraingoan. Ea zorte hobea duten!

◆ Rugbyan porrota

Mungiarrek Garagartzara etorri eta jokoan zeuden bi puntuak eraman zituzten. Partidua oso parekatua izan zen, baina garaipena, Bizkaia aldera eraman zuten 6 eta 14ko emaitzaz.

◆ Brues indartsu

Bere lehenengo denboraldi ofizialean Cnes. Brues futbito taldea bikain ari da. Arabako liga barruan jokatzen duen talde honi lidergoa hartzea kostatu zitzaion, baina hartu zuenetik bikain dabil. Joan den asteburuan, Burgmar taldea izan zuen aurrean eta 13 eta 1 irabazi zion. Gasteizen jokaturako partiduan Burgmarrek irabazi zuela gogoratu behar da. Datorren astean Gasteizko Centro Asturiano taldearen aurka jokatu dute arrasatearrek, sailkapeneko erdikaldean dagoen taldearen aurka hain zuzen ere.

“PAL”

burdindegia,
brikolage
eta tresneria

Uribarri etorbidea, 3
Tfnoa: 79 31 99



PAZI-OLA SA
GALDARAGINTZAKO LANTEGIA

Zaldispe kalea, 2 ARRASATE Tfnoa 79 29 91

Neke kronikoaren sindromea

Nekaturik egotea ez da gauza bixia; denok, gure bizitzako une batzutan nekatuta aurkitzen gara, eta behin baino gehiagotan gainera, lan gehiegi genuelako, gaitz baten ondorio bezala, edo urtaroren aldaketarengatik soilik; kasu hauetan gertatzen da egoten gara, ezertarako gogorik gabe eta esfortzu txikiena zama astuna iruditzen zaigularik.

Baina benetako arazoa, nekea iraunkorra eta kendu ezina denean, dagoela esan genezake.

Orain dela denbora gutxi gaitz berri bat deskribatzen hasi dira: "Neke Kronikoaren

Sindromea", amerikarrek "Juppien Gripea" deituei.

Gaixotasun honek nekearen sentsazioa sortarazten du eta hilabete nahiz urteetan ere iraun dezake; sintomen agerraldia gripeararen antzerakoa da: giharretako minberatasuna, buruko mina, sukarrara...

Ez da oraindik bere zergatia ezagutzen, baina. Batzuen eritziz birus bat da guzti horren sortzailea.

Ikertzaileek, burmuinak egiten dituen hormona batzuen eskazia detektatu dute, jakin beharra dago ordea eskasia hori gaitzaren zergatia edo ondorena den.



adibidez, nekea sintoma bakarrartzat dutenak, bere hasieran behintzat; beraz ez da arritzekoa beste birus batzu, ezezagunak orain arte, gaitz berri honen sortzaile izatea.

Dena den, bere sorreri buruz oso gutxi dakigula da egia bakarra.


Neke kronikoaren sindromeak aipaturiko sintomez aparte konzentrazioarrako ahalmena eta oroimena gutxitu egiten ditu eta suminkortasuna berriz gehitu.

Tratamendu egoki eta eranginkorrik oraingoz ez da ezagutzen gaitz horri aurre egiteko.

EUKENI ETA ARANTXA

Egia esan badaude gaixotasun birikoak, B hepatitis kronikoa eta iraunkorra

92ko ezkongaiak



BIKOTE SARITUARENTZAT ERREGALIAK 92KO EZKONGAIEN LEIHAKETA

ERREGALIAK

SENARGAIAREN JANTZIA
ANDREGAIAREN JANTZIA
ERAZTUNAK
EZTAI EGUNERAKO CAVA
EROSKETA TXARTELA

ARGAZKI ERREPORTAIA
PALMA DE MALLORCARA BIDAIA
EROSKETA TXARTELA

ETXEAK

AUZMENDI JOSTUNDEGIA (Donostia)
BAYON (Donostia)
KAREAGA (Eibar)
CODORNIU
SUKALDERAKO HALTZARIAK
SKRAMER (Gasteiz)
FOTOKAI (Donostia)
EROSKI BIDAIAK (Donostia)
GANZARAIN HALTZARIAK (Azkoitia)

ZOKETA: MARTXOAREN 2an 11,30etan

1993ko Martxoaren 31 baino lehen ezkontzeko asmotan bazara, bete orri hau eta bidal ezazu Otsailaren 29a baino lehen LOIOLAKO HERRI IRRATIA • 92KO EZKONGAIK • 20720 AZPEITIA (GIPUZKOA) helbidera.

SENARGAIA _____ (izen deturak)
 _____ (helbidea)
 _____ (herria) _____ (telefonoa)
 ANDREGAIA _____ (izen deturak)
 _____ (helbidea)
 _____ (herria) _____ (telefonoa)

Ezkontza eguna (gutxi gora behera)

HERRI Irratia





17168

HISPANICArekin hilebeteko oparirik onena: 18 martxotako mountain bike bizikleta.

GALDETZEKO

- 2 liburuki
- 896 orrialde
- 30.000 hitz
- 1.300.000 hitz baino gehiago
- Sakontzeko 150.000 bidalketa baino gehiago

HISPANICA jakintzaren mundua zure eskura

SAKONTZEKO

- 14 liburuki
- 5.824 orrialde
- 6.000 artikulatu
- 4.000.000 hitz inguru
- 7.500 ilustrazio baino gehiago, gehienak koloretan

DATUAK JAKITEKO

- Liburuki 1
- 494 orrialde guztira
- 176 orr. munkuko nazioei buruzko datu zehatzekin
- 96 orr. nazioarteko datu konparatiboekin
- 64 taulak munduaren historia laburtzen dute
- 71 mapa koloretan orr. osoan
- 76 orr. toponimoen indezearekin

ZEURE BURUA HEZITZEKO

- Liburuki 1
- 448 orrialde
- 39 entseiu tematiko
- 330.000 orr. inguru
- 500 taula baino gehiago sakontzeko bidalketekin

THE ENCYCLOPAEDIA BRITANNICA



eta urtero 3 liburu

ANGLOTUTOR

Ingelesaren irakaskuntza programatua.

“Irakaskuntza programatua azken 200 urtetako aurrerapauso handiena da pedagogian”.

(“Pozzard txostena”. UNESCO).



INFORMAZIOA NAHI DUT

Izen-deiturak:

Helbidea:

Herria:

Etxeko tfnoa:

Laneko tfnoa:

Honako informazioa jaso nahi dut:

- Enciclopedia Hispánica
- Enciclopedia Británica
- Anglotutor

Siervas de Jesus, 27-1. 10. Apartamendua
01001 GASTEIZ

Ekin, euskal kulturaren aldeko emakume taldea

Zortzi urte direla gutxi gorabehera, EKIN emakume taldea sortu zen Arrasaten, orduan bi lagunekin eta gaur egun zortzi lankidez. A.E.D.ren inguruan sortu zen talde honen lehenengo helburua, euskararen erabilpena bultzatzea izan zen, baina batez ere taldean, hau da lehen-dabizi euren arteko harremanak euskaraz izateko konpromisua hartu zuten. Gainera, senitarteko harremanetan emakumeen paper inportantea bereiztu nahi zuten batez ere. Gero euskarazko zerbitzuak eskaintzen eta zabaltzen hasi ziren, eta hori da gaur egun bete nahi duten funtzioa, ikastaro, mahai inguru eta hitzaldien bidez. Orohar, nahiz eta guztiak emakume zein gizonei zuzenduak egon, emakumeak izaten dira be-



harbadá interes gehien jarri dutenak. Ikastaroen artean, praktikoak dira arrakasta gehien izaten dutenak, hauen artean psikologia, sexologia eta sukaldaritza.

Bestalde, beste hurbileko herri batzurekin ere izaten dituzte harremanak. "Bai, ekitaldien berri izateko askotan izaten ditu-

gu beste herri batzuetako emakume taldeekin kontaktuak, Eibar, Eskoriatza, Errenteria eta beste hainbat tokitakoekin, hala ere adierazgarriena da gaztelaniaz izaten direla gehienak". Balantze bezala, taldekoek esan digutenez, zirkulo txiki baten bakarrik lortu dira aurrerapenak, baina kaleko er-

lazio eta jarreraren ez dute aldaketa handirik ikusten, erdereraren nagusitasuna nabaria delako askotan.

Gaur egungo helburu handiena oraindik ezezagunak diren sektoreetan ohiartzuna lortzea da, horregatik zerbitzu hauek Arrasateko beste auzoetara zabaltzea nahi dute, San Andres edo Erguenera esate baterako.

Esandakoa kontutan hartuz, artikulo honen bidez atek zabaldu nahi dizkizue guztioi "Dei bat egin nahi dugu, euskera jorratu nahi duten guztiei eta ikastaroetan parte hartu nahi duenei, gainera inizatiba eta proposamen berriak onartzeko prest gaude ikastaroen gaiak aldatzeko eta abar" Argibide gehiagotarako AEDra jo dezakezue.

LANDALUZE

ANATE-PRODUKTUAK
TERRINE DE FOIE BLOC
PARFAIT MACRÉ ET CONFIT
ETXEN EGINIKO
ANATE-URDUTZPIBOK

Iturriotz, 7 ARRASATE Tfnoa: 79 14 86

MUSAKOLA OSTATUA

Taberna
Jatetxea
Bazkariak
Bodak
Banketeak
Gelak

Gipuzkoako Etorbidea z/g
 Tfnoa: 79 20 50

◆ **Ikastaro praktikoak**

Famili eta gizarte heziketarako zentruak, makrametapiz ikastaroa antolatu du, datorren martxoaren 2an hasiko dena eta 30eraino luzatuko dena. Orduetgia 3.30tik 6etara edo 6.30tik 9etara izanik, klaseak astelehenetan bakarrik emango dira. Gainera, bolillo ikastaroa ere antolatu dute, martxoaren 5etik 26ra luzatuko dena. Gerorako badituzte beste ikastaro batzuk ere programan, eskulan desberdinen tailerra, sukaldaritza eta gitarra ikastaroak.

◆ **MCD eta La Hiel Gaztetxean**

Ia astero bezala, Arrasateko gaztetxean rock-kontzertua antolatu dute asteburu honetarako. Kontzertua larunbatean izango da, gaueko 10.30etatik aurrera, eta taldeak Bilboko MCD eta Gasteizeko La Hiel dira. MCD taldeak, 1978. urtean sortutakoak, bere hirugarren diskoa atera berri du, "De ningún sitio a ninguna parte" izenburuarekin. Bilbotar eta gasteiztarren azken lanak entzun nahi dituenak, badaki non duen aukera. Sarrera 400 PTAtan ezarri da.



Bost urte direla hasi zen harria eta zilarra lantzen. Bidaia atxakitzat hartuz, Hego Ameriketatik lehen-gaiak ekartzen ditu, hemen landu eta gero saltzeko.

— **Noiz eta nola sartu zinen bitxien mundu hone-tan?**

— Gustatu, beti gustatu izan zait baina batez ere Hego Ameriketara bidaiari joan nintzenean sartu nintzen mundu horretan. Brasilen harria lantzen zuen talde batekin bizi nintzen eta hortik hasi nintzen pizkat ikasten, soldatzen eta abar. Gero hona ekar-tzea bururatu zitzaidan, nere etxean lantzeko eta hemen saltzeko. Lehenda-bizi alanbrea lantzen hasi nintzen. Orduetik gauza gehiago ikasten joan naiz eta hemen jarraitzen dut.


— **Ze motatako materia-
lekin egiten duzu lan?**

— Batez ere zilarrakin identifikatzen naiz. Batzu-tan urrea ere erabiltzen dut baina enkarguetarako gehien bat. Niretzat garran-tzitsuena metala arriarekin konbinatzea da, Chile, Brasil edo Perutik ekarri-tako harriekin, kuarzoare-kin esate baterako.

— **Non saltzen dituzu**

Jesus Kruzeta

Harri eta zilarraren artisaua



produktuak? Toki batzutan arrakasta gehiago izaten duzu?

— Azoketan, dendetan eta enkarguz saltzen ditut. Azokan saltzeko, gabonak eta uda aprobetxatzen ditut. Batzutan, bai arrakasta gehiago izaten dut, segun eta ze jende motarekin topo egiten dudana, gehiago edo gutxiago saltzen dut.

— **Gerora begira, nola ikusten duzu etorkizuna?**

— Niretzat ez dago etorkizunik, gaurko eguna bakarrik existitzen da. Etorkizuna hobea izatea espero dut, baina ez dakit lanbide honetan jarraituko dudana. Momentuz, harrien gainean montaiak egitea gustatuko litzaidake, egurrarekin, zilarrarekin, tuboekin, eta abar.

— **Nondik hartzen dituzu modeloak?**

— Gehienetan asmatu egiten ditut, baina bestela liburu batzuk begiratzen ditut edo beste batzutan, lanean hasi baino lehen diseinua egiten dut. Hau batez ere enkarguetan. Horretarako diseinu ikastaro bat egin nuen.

— **Hobby edo zaleta-sunen artean, zein bereiz-tuko zenuke?**

— Argazkilaritza. Askotan bitxiak erakusteko erabiltzen dut argazkia. Teknika desberdinak erabiltzen ditut, adibidez, zuri beltzeko fondo batean kolorezko bitxiak jartzen ditut, eta abar. Gainera eta beharbada zaletasun handiena bidaiak egitea da. Horrela hasi nintzen, bidaiak aitzaki bezala jarri eta orain ere askotan ibiltzen naiz handik hona, teknika berriak ikasten.

"Artisau munduan kalea da eskolarik onena"

Onduline

TXOMIN HERIZ



eraikuntzarako materialak

Biltegia: Bidekruzeta, 1 Tfnoa: 79 23 18

ARRASATE PRESS



77 05 65

Aste gazte

"Pentsatzen hasten den soldaduak ia utzi dio soldadu izateari".

H. Boll



Lana

Gipuzkoako Diputazioa:

- Prebentzio eta interbentzioko 4 laguntzaile teknikari. Baldintzak: goi mailako batxilergoa, LH 2 edo baliokidea, B-1 gida baime-na eta euskararen 2. hizkuntz eskakizuna.
- 16 suhiltzaile, Irun eta Oñatiko parkean lan egiteko. Baldintzak: eskola graduatua, LH 1 edo baliokidea, B-1 gida baimena eta C-1 baimena eskuratzeko konpromezua. Instantziak aurkezteko epea: martxoak 7.

Lehiaketak

- "Villa Madrid" sariak: Antzerkia, Saiakera, Poesia, Ikerketa Zientifikoa, Musika, Kazetaritza, Argazkigintza, Pintura, Interpretazioa, Zinegintza, Eskultura, Irratia, Keramika, Narrazioa, Humore grafikoa. Sariak 500.000 eta 2.000.000 PTA bitartekoak. Lanak aurkezteko epea: Otsailak 28.
- Azpeitiko "Umeen Museoa" III. Komiki-Lehiaketa. 8 eta 16 urte bitarteko gazteei zuzendua. 2 sail: infantila (8-12 urte) eta juvenila (13-16). Gaia: "neu nire ingurugiroan". Euskaraz nahiz gazteleraz, kolo-

retan edo zuri-beltzean. Lanak aurkezteko epea: Otsailak 29.

"Jovenes cooperantes"

- Programa honen helburua garatzen-prozesuan dauden herriekin solidaritatea eta kooperazioa izanik, 29 urtetik beherako lizentziatuei zuzenduta dago. Hiru fasetan banatzen da: pres-takuntza, tailerra eta praktikak (6 hilabeteko lan-kontratua hegoamerikan). Izenemateko epea: otsailak 27.

Bekak

- Juan March Institutua:


92-93 ikasturtean Giza-Zientzietan ikasketa aurreratuen Zentruan ikasteko 8 beka. Eskatzaileak: karrera 89az geroztik bukatu duten lizentziatuak. Dirulaguntza: 110.000 PTA hilean. Epea otsailak 28.

Informazio gehiago:

Gazte Zerbitzua,
77 00 65



LORAMENDI KIROLAK



Skiak konpontzeko
TAILER BERRIA dugu!

Ipini prest zure ekipoa:
zolak, ertzak, argizari
ematea...

**D E N A
E S K I A
E G I T E K O**

ETXEBIZITZAK

- Eskoriatzan etxebizitza alokatuko genuke lehenbailehen. Tfnoa: 73 04 20. Amaia.
- Etxebizitza salgai Zigarrolan. 4 logela, egongela-jangela, sukaldea, bainu gela, guztiz amueblatua. Dei egin 79 18 34 zenbakira.
- Gela alokatzen dugu ikasleen etxebizitza baten ekainetik aurrera. Tfnoak: 74 00 37 eta (94) 630 85 40 / 684 16 65.
- Eskoriatzan pisua osatzeko neska baten bila gabilta. Logela bat libre dago. Dei egin 81 66 24 tfnora.
- Hiru pertsonentzako etxebizitza behar dugu Arrasaten. Tfnoa: 79 48 11. Oskar eta Blanka.

LANA

- Esperientzia duen neska prest umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko. Tfnoa: 79 72 92. Elena.
- Emakume euskalduna behar dugu etxeko lanak egin eta umea zaintzeko. Dei egin 7etatik aurrera 77 05 22 tfnora.
- Emakume euskalduna etxeko lanak egin eta umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Tfnoa: 79 07 73.
- 1. eta 2. REMeko klase partikularrak emateko prest (bereziki matematika, kimika, eta fisika). Dei egin 79 79 14 tfnora. Sergio.
- Klase partikularrak ematen ditugu: Oinarrizko Heziketa Orokorrean eta euskara maila guztietan. Tfnoa: 77 04 98.
- 7. mailako matematika eta hizkuntza klase partikularrak behar dira. Dei egin 8.30etatik aurrera 79 20 40 tfnora.
- Emakume euskaldun bat behar da etxeko lanak

egin eta bi ume zaintzeko. Dei egin 7.30etatik aurrera 79 63 29 tfnora.

- Bi oheko gela alokatzen da. Tfnoa: 79 07 73.
- Errusierako klaseak ematen dira. Dei egin 79 78 75 tfnora.
- Idazmakinez eta ordenadorez pasatzen dira lanak. (Bai erdaraz eta baita euskaraz edo ingelesez ere). Tfnoa: 79 62 89.
- Aretxabaletako Dis-Tel oihaldendak esperientziadun jostuna behar du. Dei egin 79 48 49 tfnora.
- Pertsona nausiak eta umeak zaindu edo etxeko lanak egingo nituzke, orduka edo egun guztiz.. Tfnoa: 79 54 03.

SALEROSKETAK

- la berria dagoen arko-izozkailua saltzen da 65.000 PTAan. Neurriak 1,30 zm. luzeeran, 0,90 zm. altueran eta 0,65 zm. zabaleran. Dei egin asteartetik larunbatera bitartean 94 - 682 04 83 tfnora.
- Txapa kalefaktorea salgai, egoera onean, baita gas naturalarentzako ur berogailua ere. Tfnoa: 79 59 72.
- Colnago markako mountain bike-a saltzen da. Atzekaldean kubieta berria eta grupo osoa Shimano markakoa ditu. Oso egoera onean dago. Prezioa 50.000 PTA. Dei egin gaueko 8etatik 10etara 79 08 48 tfnora.
- Hiru mendiko bizikleta salgai. Mendiz, Otero eta Orbea markakoak. Tfnoa: 77 04 21.
- Collie txakurkumeak ditut salgai. Tfnoa: 76 64 83.
- Fondoko hiru eski pare salgai. 6-8, 8-10 urte eta nagusientzat. 5, 7 eta 10 mila PTA, dena osorik. Tfnoa: 76 32 69.
- Urte t'erdiko piso bat eta kutxa erregistradora bat (3 urtekoa) salgai. Prezioa 135.000 PTA (Negoziaerriak). Tfnoa: 94 - 658 34 94 (Dei egin goizeko 10etatik 13etara).

- Yamaha SR 250 motorra salgai. 17.000 kmkin eta 230.000 PTAan. Dei egin 79 62 56 tfnora 8etatik aurrera.
- Zibro-Kamin RCA-86 berogailu japoniarra salgai. Berria. Tfnoa: 79 15 54.
- Zibro-Kamin RCA-86 berogailu japoniarra eta ur-berogailua salgai. Berriak. Tfnoa: 77 06 70.
- Marshall anplifikadorea salgai. Transistore "combo" modeloa 100 watt. Urtebete baino gutxiagokoa. Oso prezio onean. Dei egin 79 36 83 tfnora.
- Alpen Kreuzer Allure modeloko kanping erremolke-denda salgai. Tfnoa: 79 80 85.
- Gezi moduko kitarra elektrikoa distorsio eta guzti salgai. (Gorria eta beltza). Baita pedala eta Aria markako anplifikadorea ere (berria dago), 50 W. AG-35 R modelokoa. Dei egin 79 39 92 edo 945 - 26 28 01 tfnoetara.
- Alpen Kreuzer Super GT kanping erremolke-denda salgai, oso egoera onean dago. Dei egin 945 - 44 50 43 tfnora.
- Zibro-Kamin RCA-86 berogailua salgai. Dei egin 79 57 93 tfnora egun ez edo 79 82 28 gauez.

DENETARIK

- 3 txakurkume ditut erregalatzeko, oso politak dira. Dei egin 79 66 45 tfnora.
- Lanak ordenadorez inprimatuko nituzke. Dei egin 7etatik 9etara 79 58 72 tfnoa.
- Buzoneoa egiteko prest. Enpresa eta erakundeen iragarkien banaketa egiten dugu. Dei egin goizez 79 35 02 tfnora.
- Ehiza-txakur bat erregalatzeko nuke, txertatuta dago, eta urtebete du. Dei egin 76 64 47 tfnora.
- Otsailaren 4ean Urkulun eguzkitako betaurrekoak galduta nituen bostak aldera. Inork aurkituz gero, deiezala 79 21 50 tfnora.
- Sonia, egun zoragarri bat pasatu eta esan bezala iritsiko naiz. F asko M gutxi.



ARRASATEN
HILDAKOAK

Ageda Lizarralde Arriola,
urtarrilaren 13an. 85 urte.

Jose Campos Villaverde,
urtarrilaren 14an. 63 urte.

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK
DEBALDE DIRA. TESTUA IDATZI ETA
BIDALI GURE BULEGOETARA

TESTUA:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Azoka kalea, 1 20.500 ARRASATE

Tfnoa: 77 08 15

Zer nahiago?

Jesus Moya Azokako saltzailea



- **Arraultza zuriak ala gorriak?**
Hemengo jendeak gorriak nahiago ditu. Zuriak kanpoko jendeak gehiago erosten ditu.
- **Postrerako gazta ala menbriloa?**
Biak elkarrekin badira hobeto.
- **Baserría ala kalea bizi izateko?** Gu baserrian bizi gara eta bertan ohitu garenez ...
- **Afaltzeko xerra ala arraultza?**
Filetea bi arraultzakin bada, askoz hobeto.
- **Behi ala ardi gazta?** Gustatu biak, baina ardiarena gustorago jaten dut.
- **Urrak ala intxaurrak?** Intxaurrak, errazago apurtzen dira eta.
- **Perretxikoak ala zizak?** Zizak. Askogatik gainera.
- **Bidai bat egiteko trena ala hegazkina?** Niretzat kotxea da onena, beharbada gehiago erabiltzen dudalako.
- **Eskutitz bat idatzi ala telefonoz deitu?** Telefonoa, bide azkarrena da.
- **Etxean izateko, kanario bat ala loroa?** Ez bata eta ez beste. Ez nahiz txori zalea.
- **Oporrak irailean ala abuztuan?** Justu bi hilabete hoietan urte osoan zehar baino lan gehiago izaten dut.
- **Futbola ala pelota partidu bat?** Orain ez dut zaletasunik baina lehen pelota nahiago.
- **Paseatzea ala poteatzea?** Ez dut asko irtetzen, baserrian egotea gustatzen zait gehiago.
- **Behiak ala ardiak?** Bietatik daukagu baina gaur egun ardiek gehiago ematen dute.
- **Janaria prestatu ala platerak garbitu?** Soldaduzkan nahiko egin nuen, orain andreak egin dezala.
- **Saltzeko azoka ala denda?** Azokan. Salneurriak hobeak direlako eta jendeak hona etortzeko ohitura du eta.

Bertsotan

Egunkaria

1
Egunkaria hartu dut esperantzaz beteta bertso batzuek idatzi beharko ditut eta titularrei jarri diet nahi dudan arreta "Poliziak egin ditu hiru atxiloketa", "afrikarrak hiltzen dira izurritez beteta", "jendea torturatzen da gartzeletan kolpeka".

2
Begiak zuzendu ditut berriro papelera "Bilboko poltsa dihoa etengabe behera", "kulturak sufrutuko du aurten diru galera", "Errealak galdu zuen Bilborekin batera" egunkaria bota dut amorruz bazterrera albiste onik ez dago ta banoa ohera.

AMAIA AGIRIANO



**Hilbera
kafetegia**

Urbarri Etorbidea
ARRASATE

**ZUBIZARRETA
TAILERRAK**

Gipuzkoa Etorbidea, 22
ARRASATE Tfnoa: 79 15 65

LORATEGI

taberna

Iturriotz, 7 Tfnoa: 79 04 67



El VIII elkartearen inaugurazioa,
1976

1

1976an VIII *Ejercito Montgomery* izeneko elkarteak inauguratu zeneko argazkia da hau, orain Sokoak taberna dagoen lekuan ateratakoa.

Bazkideek "sumarinoa" deitzen zioten. Argazkian Joxe Mari Mendizabal, Fertxu Aranburu eta Juanito Arzamendi Kuadrila 48-49an sortu zenetik,

herriko jende asko bildu zen bertan, eta Ingalaterrako ejerzitoa bezala alde guztietako osatua zelako deitu zioten horrela. Bestean Montgomery Generala zen bezala, Arrasatekoan ere bazuten buruzagia, **Esteban Pagoaga** Koronela, berak esan ohi zuen moduan "del otavo ejersito". Sozietatea egiteko beste talde batekin elkartu ziren.

Elkarteak sortu aurretik, berrogeita hamar inguruan hasita, sekulako animazioa izan zen lagun talde hori Arrasaten, 52an Santa Agedako

Korua sortzeaz gain, inon ziren ekintza benefiko guztietan hartzen bait zuten parte: Erregetako kabal-gata, erretako etxearen edo ume behartsuen alde etab. Herrian garai hartan ezer ez zegoela eta, animazio berezia jarri zuten. Horrez gain, kuadrilako bertako norbait bajaran egonez gero, denen artean dirua batu eta eman egiten zitzaion. Kuadrilan sartzeko, berriz, kantu aproba egiten zuten pianoaz lagunduta.


BIONA

Zurgin Kantoia, 2 Tfnoa: 79 20 04 ARRASATE

**ARRASATE
PRESS**

77 05 65

Gurutzegramak




Horizontalak

1. Adoretzu
8. Arrasateko jubilatuen egoitza
9. Benetakoak ez direnak
11. Eguzki
12. Lutezioa
13. Musika nota
14. Gipuzkoako Udala
16. Beruna
17. Ezer ere ez
18. Egoitza

Bertikalak

1. Kafe eta esnea nahasiz
2. Moztu
3. Afrikako errepublika
4. Erdi, hitz elkartuetan
5. Dudarik gabe
6. Hitz grekoa
7. Kikildu
10. (Ald.) + Lumpur, Malasyako hiriburua
14. (Ald.) Nazio Batuen erakundea
15. (Ald.) Euskal Telebista
16. Italiako ibaia



JUAN BAUTISTA AGORRIA

BIDEO-EMANALDIA

Robocop

Tokia: Monterron kultur etxea


Eguna: otsailak 22, larunbata


Ordua: arratsaldeko 4.30etan

Prezioa: 50 pezeta

Sarrerak: Monterronen

Antolatzailea: Arrasateko Udaleko Euskara Batzordea





GOSCINNY eta UDERZOren filmea
Egilea: BELVISION-BRUSELAS
Musika: Gérard CALVI
Parte hartzen dute:

Telebegi

Asterix Galiarra

Asteko zinea, 9.50

Nork ez ditu Asterix, Obelix, eta konpainia ezagutzen?

Bagure gaztetxo, eta ez hain gaztetxoen gozamenerako, datorren astelehenetik ostiralera, Asteko Zinea saioan euren abenturak eskainiko ditugu.

Petibonumgo erromatarren kanpamenduan, Caius Bonus oso haserre dago, bere patruilak, galiar auzo txikiko batekin aurkitzen diren bakoitzean, garaituak eta sakabanatuak izaten direlako...

Lepoa jokatu nuke geroz eta mondrauetar gehiagok ikusten duela ATB.

Batetik, eta langileen zoritxarrerako, emisioak egunerokora pasatu direlako; eta gera edo ez, horrek ATB eta ikusleen arteko harremana sendotu duela.

Bestetik, gaur egun askoz garbiago jasotzen delako zuon etxeetan ATBren seinalea. Oraindik ere arazo teknikoak izaten ditugun arren, aste honetan bertan kasu, gehienok ados egongo zarete gure emisioen kalitatea hobetuz joan dela denboraren poderioz.

Azken asteotan sortu dugun zalapartak ere (triptikoa, ATBoom... e.a.) des-pistaturen batzuk erakarriko zituelakoan nago.

Bai. Gaur egun ATBk inoiz baino ikusle gehiago duela emango nuke.

Ezin, ordea, lotan gelditu. Telebistaren munduan, atzo ondo egindakoak gaur ezer gutxi balio du. Egunerokoaren dinamika eroa. Dinamika horretan irabazle izan nahi badugu, telebista honetan mondrauetarron partizipazioa tinkotzeko txanda heldu dela uste dut.

Batetik, ahalik eta toki gehienetara iristeko, Arrasaten zerbait, edozer gertatzen den bakoitzean etxe honetara deitzeko ohitura har dezazuela eskatu nizuke. Eta bigarrenik, kamararen aurreko lotsa *bedeinkatu* hori behingoz alde batera uzteko. Partizipazioari esker lortuko dugulako Arrasatek merezi duen telebista, gainontzeko herrietan esistitzen ez den aukera aparta.

JON ANDUEZA

ATBketan

Anne Igartiburuk zuzendutako lehiaketa umoretsua

Ostegunetan
9.15

ATBk

Asteburuetarako kazetariak behar ditu.

Ia ba, deitu:
770690-770815

Txatxaran

Patxi Montero,
SS-77

Asteazkenean
9.15etan

Programazioa

23

IGANDEA

9.15etan, **Mondragol**. Santutxu-Mondra partiduaren ordu erdiko laburpena. Jon Andueza eta Jose Luis Ezkurraren eskutik.

24

ASTELEHENA

8, 8.30 eta 9etan, **Berriak**. ATBren albiste-emanaldia.
9.15etan, **Mondra Sport**. Arrasateko kirol-munduaren errepaso, Gerardo Mendizabal eta Mikel Uribealgorrekin.
9.45. **Asteko zinea**: Asterix Galiarra.

25

ASTEARTEA

8, 8.30 eta 9etan, **Berriak**.
9.15. **Erreportaiak**. Gaiak: Apotzako bertsolari eta bertsozaleen afaria, eta Drogo-menpekotasunen arazoari buruzko kanpaina.
9.50. **Asteko zinea**: Asterix Galiarra.

26

ASTEAZKENA

8, 8.30 eta 9etan, **Berriak**. ATBren albistegia.
9.15. **Txatxaran**. Elkarrizketa saioa. Gonbidatua: Patxi Montero.
9.45. **Asteko zinea**: Asterix Galiarra.

27

OSTEGUNA

8, 8.30 eta 9etan, **Berriak**. Albistegia.
9.15. **ATBketan**. Anne Igartiburuk aurkeztutako lehiaketa berri eta ikusgarria.
9.45. **Asteko zinea**: Asterix Galiarra.


28

OSTIRALA

8, 8.30 eta 9etan, **Berriak**. Informatiboa.
9.15. **Ostiral Musikala**: Marta Izagirrek zuzenduta, Arrasate Musikali eskainitako saioa.
9.45. **Asteko zinea**: Asterix Galiarra.



OPEL ASTRA BERRIA



Puntuantzeko Injekzio-dun Astra motore-serie berria, potentzia handiagoa cm³-ko.

POTENTZIA ADIMENTSUA

*Imajinatu! Opel Kontzesionariak
Opel Astra berriaren potentzia
egiaztatzen gombidatzen zaitu.*

*Beti zurea,
Opel Astra.*



Imajinatu Astra motore berrien posibilitateak. Imajinatu 82tik 150 CV-erainoko potentzia adimentsua. Imajinatu, zeure ekonomian pentsatzen duen potentzia, eta eraginkorra, azken-azkeneko. Puntuantzeko Injekzio Sekuentziala duena. Ekologiaren adiskide, 3 bideko Katalisatzailea integratuta. Imajinatu, potentzia adimenarekin bat eginda. Opel potentzia duzu.

Gidatzeko atsegina dagoeneko ez da zilindrada-kontua, adimen-kontua baizik. Egiaztatu zeure Opel Kontzesionari Ofizialean. Gombidatua zaude.

OPEL

BADAZU OPEL ASTRA-RIK 1.547.000 PZTA.*

OPEL ASTRA, ALEMANIAKO INJINERUTZA ETORKIZUNERAKO

* Fabrikatzeileak gomendaturiko prezioak (Penintsula eta Balearretarako), garraioa, BEZ eta emate-aurreko gastuak barne. Kopuru handiko salmentak ere bai. Eska informazioa zeure Opel Kontzesionari Ofizialari eta finantziario eta leasing-erako, ez ahaztu Opel Credit, Opel Leasing eta Opel Renting-en baldintza paregabeak.

TALLERES OLA, S. L.

Olabarrena Auzoa, z/g. Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46. BERGARA (Guipuzkoa)

Erakusketa ARRASATEn: Loramendi, 2. Tfnoa: 79 05 86

DEBA ARRO. LEINTZ BAILARA ETA GOIERRI GARAIrako

kontzesionaria

Zerbitzu Ofiziala ARETXABALETAn

TALLERES NORTE

Pol. Ind. BASABE. Pabellón A-13. Tel. 79 62 65



OPEL KONTZESIONARI OFIZIALAK, HOBEAK ESPERIENTZIAZ.